




ORIO
marea bizian

Euskara

LITERATUR LEHIAKETA 2023



ESKOLA-UMEENTZAKO
**LITERATUR
LEHIAKETA**
2023



Azala: Maria Ikutza Arriola
Legezko gordailua: SS 477/88
Inprimaketa: Bizker grafikak (Lasarte-Oria)

Aurkibidea

Hitzaurrea. Ainhoa Mujika	5
Natura ezagutzen. Laiene Erkizia Etxaniz	7
Haserrea. Zirats Gonzalez Allende	7
Krixki sagutxoaren istorioa. Jare Antero Grefa	9
Manex, Kilian eta basoko iratxoa. Kilian Etxeberria Iribar	15
Zergatik? Arhane Fuentes Mugika	17
Amona. Amets Loidi Etxabe	19
Mozorro-festa. Iñaki Aranzasti Iturbe	19
Abentura bat Txinan. Ihintza Izulain Bordagarai	23
Familia. Elene Etxabe Elustondo	27
Aliron. Malen Etxeberria Erzilla	29
Djak Oriotik mundura. Malen Eskudero Leunda	31
Korapiloak nire buruan. Mariana Isabella Hernandez Alcarcon	35
Bizitza. Malen Olaskoaga Etxeberria	37
Basoa. Itxaso Zaldúa Peña	39
Kairo. Irati Sarasketa Ujvari	39
Bikiak eta botila misteriotsua. Amaiur Urdangarin Egibar	45
Neguk dakarren hotza. Ander Anton Pazon	47
Mundua zaindu dezagun. Unai Goikoetxea Gaztelumendi	49
Itzalen erreinua. Iraia Peña Fernandez	51
Gabonen bila. Irati Txintxurreta Goikoetxea	55
Abenduaren 18a. Oier Iruretagoiena	59
Gure ibaia. Axel Atorrasagasti Pikabea	61
Arrautza frijitua. Nadir El Maimouni	63
Bi pertsonaren bizitza. Irena Maciejewski	65
Udako ilunabarrak. Leire Alberdi Aragoneses	71
Nik pentsatzen dut. Hector Xabier Gonzalez	73
2,42. Ander Uranga	75
Mugikorraren zuloan. Elene Urrestilla Uranga	83
Agur. Uxue Etxeberria Erzilla	87
Bizitzaren pantaila. Lander Lazkanotegi Arriaga	89
Izan ez ginen guztia. Rosa Pilar Flores	89
Ametsetako lorategia. Klara Puertas Rementeria	93

Hitzaurrea

Hitzaurrea

hitzaurrea,
hitzaurrean
GU
egunero;
baina
zenbaitetan
...

baita atzean ere,
ezkutuan.

GURE hitzak aurrera egiteko
aurre hartu behar diogu etsipenari,
alferkeriari,
lotsari,
nekeari,
katastrofeari.

Aurrera egin behar dugu,
HITZ EGIN,
IDATZI,
SORTU,
JoLaStU,
GOZATU!

Hitza da mahai bueltako berriketa, lagunarteko sekretua, maitasun aitortza, osabaren txistea... Hitza da literatura, jolasa, edertasuna... Hitza da poema bat eskailera formako marrazki bat dirudiena. Hitza da ideia, pentsamendua, hausnarketa... Hitza da ahoa, belarria, burua... Erein dezagun hitzaurrearen hazia txiki-txikitatik, lurraren gordeleketatik erne dadin; eta egin dezagun denok batera enbor sendoaren bueltan eskaileretan gora, gora eta gora, hitzaurrearen aurrera. Sar zaitez sormenaren mundu eder honetara. AURRERA!

Ainhoa Mujika

Natura ezagutzen

Eguzki argi,
plazan nabil.
Egun eder,
ilargia hil.
Neguko haize
fina dabil,
baina udaberria hurbil.
Izan ditzagun fruitu eta lore borobil,
ingurumena zaindu eta natura erabil.

Laiene Erkizia Etxaniz

Haserrea

Haserrea beltza da.
Norbaitek jotzen zaituenean, haserretu egiten zara.
Haserreak mina ematen du.
Haserre egoteak zuri mina ematen dizu.
Haserrea tximista bezalakoa da.
Haserreak beldurra ematen du.
Haserreak gaizki jartzen zaitu.
Haserrea mina da.

Zirats Gonzalez Allende



Naser Cherhl Ibargoien

Krixki sagutxoaren istorioa

Bazen behin Krixki izena zuen sagutxo bat. Krixki oso alaia zen eta kalean bizi zen. Neguan estoldetatik sartu eta etxeetan ateratzen zen. Beste batzuetan, estoldarik aurkitzen ez zuenez, dendetara sartzen saiatzen zen. Gehienetan lortu egiten zuen eta, beste batzuetan, ez. Udaran kalean egiten zuen lo eta, ura edateko, erre kara joaten zen eta, bero asko egiten zuenean, bainatu ere egiten zen. Gosea zeukanean, lurreko jana hartzen zuen jateko. Batzuetan, ez zitzaion gustatzen eta, beste batzuetan, bai. Hala ere, jan egiten zuen, bestela ez zeukan—eta ezer jateko. Krixki Donostian bizi zen.

Behin, kalean zebilela, norbaitek kolpe bat eman zion eta konorterik gabe geratu zen. Lapur bat zen kolpea eman ziona. Lapurrak Erik izena zuen eta oso gaiztoa zen. Krixki esnatu zenean, fabrika batean zegoen. Aurrean norbait zegoela konturatu zen eta zerbait zorrotza zeukala. Pentsakor jarri zen. Fabrika oso handia zen eta oso zikina. Denak ke eta zabor usaina zuen, han ez zutelako zaborra botatzen. Krixkik hankak eta eskuak lotuta zeuzkan. Zapi bat ere bazeukan ahoan eta, hitz egiterakoan, ez zitzaion entzuten.

Krixkik «LAGUNDU, MESEDEZ! LAGUNDU!» oihukatzen zuen behin eta berriro, baina alferrik zen: ez zitzaion ezer entzuten gaixoari. Handik gutxira, norbait ikusi zuen berriz, zerbait zorrotza eskuetan zuela. Txertatu egin nahi zuten.


—Zergatik txertatu nahi nauzue? —galdetu zuen.

Txertoa jarri behar zionak Jon izena zuen. Bat-batean, arazo bat eduki zuten fabrian eta Joni deitu zioten. Orduan, Jon joan egin zen, arazo hori konpontzera. Bitartean, Krixki askatzen hasi zen eta ez zuen lortu; eta berriro saiatu zen eta ez zuen lortu. Berriro saiatu eta lortu egin zuen eta kalera atera zen. Oso pozik zegoen.

—Azkenean atera naiz! —esan zuen Krixkik oso pozik—.

Negua zen eta estolda batean sartu zen, eta han igaro zuen gaua. Goizean, handik atera eta, kalean zebilela, ume batek Krixki ikusi zuen. Umeak Ariana izena zuen eta Arianak maskota gisa hartu zuen. Handik aurrera, oso zaindua eta maitatua izan zen Krixki. Neguan ez zuen estoldetan sartu beharrik, ezta erre kara joan beharrik ere ura edatera. Dena bere etxetxoan zeukan. Baina arazo bat zegoen: Arianaren amari ez zitzaizkion sagutxoak gustatzen; gorroto zituen saguak. Arianak Krixki sagutxoa ondo-ondo ezkutatu zuen, baina amak aurkitu egin zuen. Amak errieta handia egin zion eta, orduan, Arianak esan zion Krixkiri:

—Barkatu, baina ezin duzu nire etxean geratu; bestela, amak berriro errieta egingo dit. Joan egin behar duzu. Agur, Krixki!



Laia Garrido Elustondo

—Agur, Ariana! —eta Krixki Arianaren etxetik joan zen.

Handik minutu gutxira, katu bat atera zen eta Krixki beldurtu egin zen. Ziztu bizian alde egin zuen eta estolda batean sartu. Krixkik, betidanik, bere familiarekin elkartzeko ametsa zuen, baina bere familia Quebec-en zegoen. Krixki txikia zenean, gaztaz betetako kutxa bat ikusi zuen eta kutxara sartu zen. Kutxa hegazkin batean sartu zuten eta Donostian bukatu zuen. Hori izan zen Krixkiren istorioa Donostian bukatzeko, eta Krixkik oraindik pentsatzen du noizbait Quebec-era bueltatuko dela.

Orduan, Krixkiri Quebec-era bueltatzeko super ideia bat bururatu zitzaion! Aireportu batera joan, hegazkinean sartu eta Quebec-era joan. Baina Donostian ez zekien non zegoen aireportua. Orduan, Krixkik bere lagun Tom aurkitu zuen eta galdetu zion:

—Tom! Ba al dakizu non dagoen Donostiako aireportua?

—Uste dut Hondarribian dagoela. Baina oso urruti dago.

—Tom, galdera bat daukat —bota zuen Krixkik—. Ba al dakizu nola joaten den Hondarribira?

—Nik ez dakit, baina Lidek bai.

—Eskerrik asko, Tom!

—Lide, ba al dakizu non dagoen Hondarribiko aireportua?

—Bai, badakit. Lehendabizi eskuinera joan behar duzu eta gero berriro ere eskuinera eta gero ezkerretara eta zuzen-zuzen jarraitu eta han aurkituko duzu aireportua.

—Eskerrik asko, Lide!

—Ez horregatik, Krixki!

—Iritsi naiz! Orain, hegazkinera nola sartu pentsatu behar dut.

Krixki pentsatzen hasi zen eta ideia bat etorri zitzaion: bidaiari baten motxilan sartu, hegazkinean zegoenean motxilatik atera, eta hegazkineko zulo batean sartu eta itxaron Quebec-era iritsi arte.


—Listo! Hegazkinean nago! Orain itxaron bakarrik egin behar dut.

—Listo! Ja Quebec-en nago! Orain nire familia aurkitzea bakarrik falta zait.

Eta, handik segundo gutxira, sagutxo bat agertu zen eta sagutxo horrek Libe izena zuen. Krixkik galdetu zion Liberi:

—Libe, ba al dakizu non dagoen sagutxoen etxea?

—Bada nik ez dakit, baina ikusten duzu hor sagutxo bat? —galdetu zion Libek.



Markel Maiza Etxezarreta

—Bai, noski! Ikusten dut.

—Ba sagutxo horrek badaki! A! Eta sagutxo horrek Ibai izena du.

—Ibai! Ba al dakizu non dagoen sagutxoaren etxea?

—Bai, noski! —esan zuen Ibaik— Lehendabizi, eskuinetara egin behar duzu eta, gero, ezkerretara; gero, berriz ezkerretara eta, gero, zuzen jarraitu eta eskuinetara biratu, eta han egongo da sagutxoaren etxea.

—Eskerrik asko, Ibai!

—Ez horregatik, Krixki!

Orduan, Krixkik Ibaik esan ziona egin zuen eta sagutxoaren tokian azaldu zen. Krixki sartu zen, baina bere familia ez zegoen. Krixki galdezka hasi zen.

—Ikusi al duzue familia bat, denak elkarrekin? Badakizue zergatik esaten zuen Krixkik familia elkarrekin? Ba, bere familia beti elkarrekin egoten zelako.

Krixki kalean barrena zebilen, bere familia aurkitu nahian, baina alferrik zen: ia gaua zen eta bere familia lotan egongo zen. Goizean, gosalduta eta ziztu bizian ateratu zen bere familia aurkitzera eta ez zuen aurkitu. Krixki pentsatzen hasi zen non egongo ote ziren, baina ez zitzaion toki bat ere etortzen. Krixkik Quebec ez zuen ondo ezagutzen, urte asko zeramalako han izan gabe eta gauza asko aldatuta zeudelako. Bat-batean gogoratu zitzaion bere anai-arrebei asko gustatzen zitzaizela parkean egotea, baina beren parke gustukoan bakarrik ibiltzen zirela. Parke hori ez zekien non zegoen. Krixki parketik parkera joan zen eta badakizue zer gertatu zen? Bere familia aurkitu zuen! Hura poza! Hainbeste urte eta gero familiarekin zegoen! Anaia Kai, ahizpa Alaia, ama Maialen eta aita Jokinekin.

Krixki bere familiarekin geratu zen betiko.

Jare Antero Grefa



Alen Redondo Britt

Manex, Kilian eta basoko iratxoa

Manex eta Kilian lagunak eta gelakideak ziren.

Txango batean, bere eskolako gela osoa basora joan zen. Han, animalia asko ikusi zituzten: zaldiak, untxiak, oreinak... Manex eta Kilian matxinsalto baten atzetik entretenitu ziren eta basoan galdu ziren. Gaua iritsi zenean, hontza-hotsak entzutean, izutu egin ziren.

Bitartean, beste haur eta irakasle guztiak kanpin batera joan ziren lotara, eta ez ziren konturatu Manex eta Kilian falta zirela.

Bi lagunak beldur ziren eta negarrez hasi ziren.

Inguruan bizi zen iratxo bat, negarrak entzutean, Manex eta Kilianengana hurbildu zen. Iratxoa kolore gorrikoa zen eta oso triste zegoen.

Manex eta Kilianek uste zuten iratxoa gaiztoa zela, baina hark esan zien zintzoa zela eta ez beldurtzeko. Bi lagunek hotza handia zuten, iratxoak bere haitzulora eramane zituen. Haitzuloa oso iluna eta sakona zen, eta han berotu egin ziren eta jan egin zuten.

Lasaitu eta iratxoarekin jolasten ari zirenean, hark, bat-batean, kobazuloan giltzapetu zituen. Inoiz ez zuen lagunik izan jolasteko eta ez zuen nahi Manex eta Kilian joaterik.

Manex eta Kilian negarrez hasi ziren eta iratxoari pena handia eman zion. Orduan, hurrengo goizean, askatu egin zituen, baina baldintza batekin: igandero basora itzuliko zirela berarekin jolastera, beti bakarrik egoten zelako eta ez zuelako norekin jolastu. Horregatik, iratxoak Manex eta Kiliani esan zien, «Xirristimirristi» hitz magikoa esaten zutenean, etxetik desagertuko zirela eta basoan agertuko zirela berarekin jolasteko eta, horrela, beti poz-pez egongo zela eta ez triste orain arte bezala.

Hurrengo egunean, iratxoak Manex eta Kilian eramane zituen irakasle eta ikas-kideak zeuden tokira eta modu magikoan desagertu zen. Egun hartatik aurrera, igandero, Manex eta Kilianek bere lagun iratxoarekin jolasten dute «Xirristimirristi» hitz magikoa esaten dutenean.

Kilian Etxeberria Iribar



Oinatz Arospide Blanco

Zergatik?

Zergatik esnatzen naiz
oso goiz larunbatetan
eta gero, astegunetan, gelditzen naiz
izaretan itsatsita?

Zergatik etorri zen Ukrainatik
Natasha gure gelara
eta gero berriro joan da
gerra bukatu baino lehen?

Zergatik fijatzen naiz hainbeste
zapatilen kolore eta marketan
eta gero, idazterakoan,
«h» guztiak ahazten zaizkit?

Zergatik ametsetan sartzen ditut
hainbeste gol
eta, gero, futbol-zelaian,
bat bera ere ez?

Zergatik?

Arhane Fuentes Mugika



Irati de la Canal Otamendi

Amona

Robotari galdetu diot ea lagunduko didan buruketa egiten,
baina berak bere bideari jarraitu dio.

Lorategian dagoen tximeletari esan diot triste nagoela,
baina berak hegan jarraitu du, hegoak astinduz.

Eguzkiari adierazi diot gaizki sentitzen naizela,
baina bera lainoaren atzean ezkutatu da.

Amona, beti bezala,
nire ondoan dago.

Ametz Loidi Etxabe

Mozorro-festa

Bazen behin 12 urteko mutiko bat. Lur izena zuen, baina lagunek Lutxo esaten zioten. Lur surflaria zen eta, astebururo, surf egitera joaten zen lagunekin: Adei, Iñaki eta Aimarrekin.

Larunbat batean, surfean ari zirela, Lurrek olatu bat hartu, oreka galdu, eta erori egin zen; ur azpiko haitz batekin hartu zuen kolpea. Lagunak ziztu bizian atera zuten uretatik eta anbulatoriora eraman zuten. Medikiak esan zion:

—Sentitzen dut: aldaka hautsita daukazu eta egun batzuk pasatu beharko dituzu ospitalean!

Ospitalean zegoela, lehen egunean, hartz bat sartu zen atetik, tronboia jotzen. Lurren abesti gogokoena jotzen hasi zen eta Lur harrituta gelditu zen. Bigarren egunean, suge bat sartu zen gelara eta dantzatzen hasi zen. Lurrek ezin zuen sinetsi ikusten zuena. Hirugarren egunean, lehoi bat agertu zen eta bertsoak kantatzen hasi zen. Lur txundituta zegoen:

—Zer da hau?

Laugarren egunean, sagu bat azaldu zen tarta batekin, eta puska bat eman zion Lurri. Erizaina etorri baino lehenago jan zuen. Eta, azkeneko egunean, pailazo bat



Arhane Gonzalez Allende

sartu zen eta txiribueliak eta pailazokeriak egiten hasi zen. Lurrek barre-algarak egin zituen.

Hurrengo egunean, medikua etorri eta esan zion:

—Lur, sendatu zara eta etxera joan zaitezke!

Larunbata zen eta Lur, beti bezala, surfeatzera joan zen lagunekin.

—Nork dauka baselina? Lepoan emateko da! —esan zuen Lurrek.

—Motxilako poltsiko txikian daukat, Lutxo! Hartu handik! —erantzun zion Adeik.

Lur motxila miatzen hasi zen eta...

—Zer dira hauek? Mozorroak dira!

Han zeuden hartza, sugea, pailazoa, sagua eta lehoia.


—Adei, zertarako dituzu mozorro hauek?

—Ospitalean zeunden bitartean, zu ez triste egoteko, mozorrotzea pentsatu genuen Aimarrek, Iñakik eta nik.

Lur harrituta gelditu zen, eta pentsatu zuen lagun onak zeuzkala.

—Eskerrik asko! Ez dut inoiz ahaztuko nigatik egin duzuen!

Iñaki Aranzasti Iturbe



Haitz Larrañegi Paredes

Abentura bat Txinan

Bazen behin Laura izeneko neskatxa bat. Bere bi amekin bizi zen, Amaia eta Sararekin. Biak albaitariak ziren eta asko bidaiatzen zuten. Laura aitona-amonen etxean geratzen zen gurasoak kanpora joaten zirenean. Asko gustatzen zitzaion musika eta, horregatik, musika-eskolara joaten zen.

10 urte bete zituenean, Olentzerok Txinara joateko bidaia bat oparitu zion. Laura oso-oso pozik jarri zen, lehendabiziko aldiz hegazkinean oso urruti joango zelako gurasoekin.

Hiru hilabete pasatu, eta Txinara joan ziren hirurak. Gurasoek hango baso batean egin behar zuten lan. Kaleko kartelak ez zituzten ulertzen, alfabetoa desberdina zelako. Egunak basoko txabola batean pasatuko zituzten. Txabolara iritsi eta hurrengo egunean, Amaia eta Sara lanera joan ziren, eta Laura basora abiatu zen. Bueltaka zebilela, panda gazte batekin egin zuen topo.

—Kaixo, nola izena duzu?

—Li, eta zuk?

—Laura!

—Zer gertatzen zaizu, Li? Triste zaudela ematen du.

—Ia beti bakarrik egoten naiz eta, horrela, aspertu egiten naiz!

—Nahi al duzu laguntzea basoa alaitzen?

—Jakina! Nola ez!

Bi lagunak pentsatzen hasi ziren, eta Laurari musika-tresnak egitea bururatu zitzaion.

—Ikusiko duzu, Li! Horrela, zure tristura desagertuko da!

Banbuekin txirulak egiten hasi ziren, eta egurrekin txalapartak. Tamaina asko-tako harriak hartu eta xilofonoak egin zituzten, eta lurrean aurkitutako poteekin, danbor txikiak.


—Orain probatu egingo ditugu! —esan zuen Laurak.

Hasieran, soinu itsusiak ateratzen ziren, baina, denborarekin, soinu atseginak lortu zituzten.

Orduan, panda gazteak hurbiltzen hasi ziren.

—Bai musika polita!

—Bai! Orain pozik sentitzen naiz!



Mahayub Bachir Mohamed

—Egingo al dugu festa bat, Li? —galdetu zion Laurak—. Baina panda gehiago beharko ditugu!

—Goazen nire lagunak bila! Horrela, tresna guztiak jo ditzakegu!

—Oso ideia ona, Li!

Horrela, bi lagunak basoko txoko guztietatik pasatu ziren eta panda asko animatu ziren. Entsaio asko egin zituzten. Festa egiteko eguna ere jarri zuten. Lan asko egin eta gero, oso dotore utzi zuten festarako tokia. Eguna iritsi zen eta denak oso urduri zeuden, baina gogo handia zuten ondo pasatzeko. Festaren erdian, panda zaharrak agertu ziren, haserre aurpegiarekin.

—Zer gertatzen da hemen?

—Festa bat antolatu dugu! —erantzun zien Lik.

—Baina gu ez gara horrela bizi! Gu bakoitza gure txokoan egoten gara!

Bat-batean, Amaia eta Sara agertu ziren eta zaharrekin hizketan hasi ziren:

—Baina horregatik gaixotzen zarete hainbeste! Triste bizi zaretelako! —esan zien Amaiak.


—Botika asko hartzen duzue, eta musikak sendatu egiten du! —gehitu zuen Sarak.

—Benetan? —harritu zen panda nagusienak.

—Ba, orduan, guk ere hartuko dugu parte festan! —esan zuen beste batek.

Egun batzuk geroago, etxera bueltatzeko ordua iritsi zen. Laurak agur esan zion Liri eta hark banbuzko txirula bat eman zion, izandako abentura gogoratzeko. Handik egun batzuetara Laurak musika-eskolara joan behar zuenez, banbuzko txirula eraman zuen, lagunei erakusteko.

Ihintza Izulain Bordagarai



Aiala Bidasoro Gaztelumendi


Familia

Familia,
betirako dena,
batzuetan txikia,
besteetan handia;
izan liteke odolekoa
edo halabeharrak sortua,
baina beti ederra.

Nahiz eta urrutira joan,
beti zure bihotzean dagoena;
haserretutakoan,
lasaitzen saiatzen dena;
hanka sartutakoan,
laguntzen dizuna;
eta gehien maitatzen zaituena.

Ondo zaindu zuen familia,
bizitza osorako da-eta.

Elene Etxabe Elustondo



Maren Larrarte Juan

Aliron

Oriotarren traineru hartan
hainbeste poz eta irri,
bata besteen indarrarekin
Kontxako bandera ekarri,
den-denak batera palarekin
kasu eginez elkarri,
herri osoan laguntzarekin
alirona dago sarri.

Arraunlariak herrira datoz
eta aurrean txaranga,
bandera astintzen pozikan daude
denak dinbi eta danba.
Gero balkoitik, jendearekin,
Mirotxa kantuan txanda,
oriotarrek beren bizitzan
ahaztuko ez duten parranda.

A, ze giroa gaurko egunez
herriko plazan dagona,
txarangan musikari segika
dantzan hasi da amona.
Herri guztia horiz jantzita,
horixe bai gauza ona!
Egun gogorra pasa ta gero,
egundoko zoriona.

Malen Etxeberria Erzilla



Ninbe Priego Peña

DJak Oriotik mundura

Johni asko gustatzen zaio musika egitea. DJa da, 30 urte ditu eta Ingalaterrakoa da. Johnek bikotekidea dauka, Ana izena duena, eta hura ere ingelesa da.

2020an, Anak eta Johnek Ingalaterra utzi eta Euskal Herrira etortzea erabaki zuten, hizkuntza berri bat ikasteko asmoarekin, eta Oriora etorri ziren. Hasiera batean, ez zuten ezertxo ere ulertzen eta beren artean ingelesez hitz egiten zuten. Konturatu ziren ezin zirela jendearekin komunikatu eta, pixkanaka-pixkanaka, euskara ikasten hasi ziren eta lagunak egiten. Familia tarteka bisitan etortzen zen, eta gustura hartzen zuten.

Iritsi zen momentu bat oso ezagunak egin zirela Orion: euskaraz ongi zekiten eta musika ere euskaraz egitera animatu ziren.

Uda zen eta oporretan zeuden. Musikari eskaintzeko denbora gehiago zuten. Ana eta John pintxatzeko makinaren aurrean eseri ziren eta musika egiten hasi ziren.

Hondartzako taberna bateko nagusiak, Xabier izenekoak, John ezagutu zuen Oriora etorri zirenean, eta mezu bat idaztea erabaki zuen: «Kaixo, John! Zer moduz? Aizu, enteratu naiz DJa zarela eta musika oso ona egiten duzula. Nahi ahal duzu nire tabernako terrazan pintxatu?».

John oihuka hasi zen:

—Ana, Ana!

—Zer, John?

—Etorri egongelara, azkar!

—Orain noa. Zer gertatzen da?

Johnek mezua erakutsi zion telefonoan, eta Ana, pozez txoratzen, dantzatzen hasi zen. Aurreneko aldia zen Orioko taberna batean musika jartzera gonbidatzen zituztela.

Biek, poz-pozik, mezuari ahalik eta azkarren erantzutea erabaki zuten: «Kaixo, Xabier! Primeran nago. Eskerrik asko! DJa naiz, bai, eta nire bikotekidearekin batera egiten ditut saioak».

Handik minutu gutxira Xabierrek erantzun zion: «Bera ere gonbidatuta dago, jakina. Nik horren berri ez nuen».

«Ongi da. Gu prest gaude nahi duzunean joateko. Gainera, orain oporretan gaude» argitu zion Johnek.

«Oso ondo! Larunbat arratsalde honetan zer moduz datorkizue?» galdetu zien Xabierrek.

«Primeran!» erantzun zuten Johnek eta Anak.

«Bale. 18:00ak aldera?».

«Ederki. Eskerrik asko gonbidapenagatik!».

«Ez horregatik. Agur!» agurtu zuen Xabierrek.

Ana eta John, egunak joan egunak etorri, musika prestatzen egoten ziren.

Larunbata iritsi zen, eta oso pozik esnatu ziren. Gosaldu eta dena prest utzi zuten arratsalderako. Goizean normaltasunez ibili ziren: etxeko gauzak egin, erosketak, dutxatu... eta kalera atera ziren, buelta bat ematera. Bueltakoan, ogia erosi eta etxera joan ziren bazkaria prestatzera, laueta tabernan egon behar zutelako.

Bazkalorduan, arratsaldekoari buruz jardun ziren.

—Bua! Gero, gure lehenengo kontzertua dugu hemen, Orion! —esan zuen Anak. Eta, bat-batean, mezu bat jaso zuen: «Ei! Zer moduz? Gu, irrikitan zuek ikusteko! Nahi duzuenean etorri!» esan zien Xabierrek.

«Iepa! Gu, ondo! Bale! Laster egongo gara hor!» erantzun zion Johnek.

Iritsi bezain laster, dena prestatzen hasi ziren eta Xabierrek garagardo bana atera zien. Denbora zuten, mahai batean eseri ziren eta hantxe geratu ziren lasai-lasai ordua iritsi arte.

Seiak iristear ziren eta musika-saioa hasi zuten. Emanaldiaren erdian, Johnek manager ezagun bat ikusi zuen tabernan eta belarrira xuxurlatu zion Anari:

—Ana, Ana...

—Zer?

—Begiratu eskuinera. Ikusten duzu? Manager bat da!

—Egia! Gure saioa ikustera etorri dela ematen du!

—Nik ere hala uste dut.

Saio bikaina egin zuten eta, jasotzen ari zirela, managerra gerturatu zitzaien eta esan zien:

—Hello! Nire izena Willy da, eta zuen emanaldia ikusi dut. Oso ondo egon da!

—Hello! Gure izenak John eta Ana dira eta pozten gara emanaldia gustatu izana. Nongoa zara?

—Ni Ingalaterrakoa naiz, eta zuek?

—Gu ere bai, baina hona etorri ginen bizitzera.

—Oso leku polita! Aizue, managerra naiz. Nahi al duzue saioak bilatzea munduan barrena? Gustatuko litzaizueke zuen managerra izatea?


Johnek eta Anak elkarri begiratu zioten, eta emozioz beteriko aurpegiak antzematen zitzaizkien. Hura sorpresa! Ez zegoen ezer esan beharrik... Ikusten zen: ideia biei gustatzen zitzaien, eta biak buruarekin baietz esaten hasi ziren.

—Asko gustatuko litzaiguke, benetan! —esan zuen Johnek.

Hortik aurrera, Willy beren managerra izan zen.

Bizitza berri bat hasi zuten, mundu osoan barrena saioak eginez eta herrialde berriak ezagutzeko aukera paregabearekin.

Malen Eskudero Leunda



Harkaitz Agirrezabalaga Agirre

Korapiloak nire buruan

Hau Beneziaren istorioa da, baina ez Italiako Veneziarena.

Benezia 12 urteko neskatila bat zen, Amerikatik Europara bizitzera etorri zena. Benezia oso urduri zegoen gurasoekin egindako bidaiagatik: beste herri bat ezagutu zuen, beste kontinente bat, beste kultura bat, beste denda batzuk...

Baina, bat-batean, gauza arraro batzuk sentitzen hasi zen bere buruan, korapiloak balira bezala, baina ez ziren bere ile ederraren korapiloak. Bere buruko korapiloak ziren eta beti buruan bueltaka zituen, errotak balira bezala:

—Eta nire lehengo lagunek ahazten banaute?

—Nola egingo ditut lagun berriak?

—O, ez! Lehengo logela oso polita zen; nolakoa izango da nire gela berria?

—Beldurtuko naute nire etxe berrian?

—Hemen beste hizkuntza bat hitz egiten dute... eta ez banaute ulertzen?

—A, zer kaosa nire buruan!

Hurrengo egunean, Beneziak ez zituen korapiloak bakarrik bere buruan: tri-pako mina ere bazuen eta bihotza azkarrago zihoakion.

Amari deitu zion:

—Amatxo! Ez naiz ondo sentitzen!

—O, Benezia! Ez zaitut gaizki ikusten. Medikuarenera joan nahi duzu?

—Ez, ama! —erantzun zion Beneziak—. Nire buruan dagoen zerbait da, korapiloak balira bezala.

—Benga, Benezia! Ilea orraztuko dizut. Ziur zure ileko korapiloak direla.

—Ez, ama! Ez dira nire ileko korapiloak. Nire burukoak dira.

—Mmm... —pentsatu zuen Beneziaren amak—. Badakit zer pasatzen zaizun. Niri ere pasatzen zait aldaketak egiten ditugunean. Ikusiko duzu: denbora pasatzen denean, zure buruko korapiloak zoriontasuneko puxika bihurtuko dira eta aurrera egingo dugu familia gisa.

Eskolako lehen eguna zen eta Beneziak Karlota izeneko lehen lagun berria egin zuen. Orduan, buruko korapilo bat zoriontasuneko puxika bihurtu zen.

Gero, klasera sartzean, Beneziaren irakasleak hitz berri batzuk erakutsi zizkion hizkuntza berrian. Beneziari pixka bat zaila egiten zitzaion, baina, hitz berri bat



Hassan Ali

esaten zuenean hizkuntza berrian, beste korapilo bat zoriontasuneko puxika bihurtzen zen. Etxe berriko logela bere gustura jarri zuenean, beste korapilo bat zoriontasuneko puxika bihurtu zen.

Horrela, Beneziak gauza bat ulertu zuen: beti edukiko ditugu korapiloak buruan, baina, denborarekin eta maite gaituen jendearekin, dena konpontzen da eta korapiloak zoriontasuneko puxika bihurtuko dira.

Mariana Isabella Hernandez Alcarcon

Bizitza

Maitasunak mina ematen du,
lagunak joan egiten dira,
denbora galdu egiten da,
oroitzapenak ez dira ahazten,
promesak hautsi egiten dira,
baina bizitzak aurrera jarraitzen du.

Guztiok egiten ditugu akatsak,
baina garrantzitsuena,
akats horietatik ikastea da,
berriro saiatzea

Denoi bukatzen zaigu bizitza,
arnasa hartzeari uzten diogunean;
baina, egia esanda,
pozik egoteari uzten diogunean
amaitzen da.

Bizitza azkar joaten da,
eta, duzun bitartean,
ongi disfrutatu,
maitatzen duzuna egin
eta, bereziki,
maite zaituzten pertsonen inguratu.

Malen Olaskoaga Etxeberria



Nahia Amilibia Sorrondegi

Basoa

Kuttuna dugu basoa,
han gaudenean egiten zaigu erosoia.
errekaren solasa, txorien jolasa,
haize leuna, azerien askatasuna,
lurrean hazia, zuhaitzen aberria,
tuneldun inurritegia, ipurtargien argia,
pago garaia, zuhaitzen kolore alaia,
hori, laranja, marroi eta berde,
basoa dugu adiskide.
hurritz,
haritz,
gurbitz.
pikondo,
udareondo,
gaztainondo.

Udaberrian hostoak esnatzen, udarako prestatzen.
Udan hostoak indartsu, adarretan tinko lotuta adoretu.
Udazkenean hostoak ahultzen, denboraren bidez erortzen.
Neguan adarrak elurtuta, zuhaitzaren energiak agortuta.

Itxaso Zaldua Peña

Kairo

Orain dela urte batzuk, Egiptoko desertuetan, ikerketa berri bat ireki zuten. Lorak izeneko neska bat zen ikerketa haren buru egiten zuena. Hark gidatzen zituen ikerketaren pausoak.

Lorak ohituta zegoen basamortuko berora. Asko bidaiatu zuen eta aurretik ere egona zen holako lurraldeetan. Oso argala zen, haizeak eramateko modukoa, baina indartsua ere bai. Primeran etortzen zitzaion argala izatea, piramideetako zulo txikietatik sartu ahal izateko, eta gauza berriak ikertzeko. Bere ametsa Egipton museo bat zabaltzea zen, baina, horretarako, bidaiaria honetako ikerketan zerbait lili-ragarria edo berezia aurkitu behar zuen, museo berri bat zabaltzeko aitzakia izango zena.

Lorak eta bere arkeologo-taldea hegazkinean sartu ziren eta Egiptoko abentura hasi zen. Nahiko ordu pasa zituzten hegazkinaren barruan, baina, halako batean, leihotik begiratu eta Keopsen hiru piramideak ikusi zituzten. Hegazkinetik atera eta taxi bat hartu zuten. Egipton oso ohikoa da prezioa negoziatzea taxi-gidariekin; batez ere, turista bazara. Eta taxian hori gertatu zitzaien: ordainsaria negoziatzen hasi behar izan zuten...

Gidariak arabieraz hitz egin zien:

- وروي نوع برأو قسم خ اهن!

—Zer esan du? —galdetu zuen taldekide batek.

—45€ direla —erantzun zion Lorakek, itzulpena eginez.

—Ze garesti!

—Gidari hau gu engainatu nahian dabil. Prezioa negoziatu beharko dugu.

Prezioa negoziatu zuten eta, azkenean, ordainsaria 25 eurotan geratu zen. Horrela, piramideak zeuden tokira hurbildu ziren. Kanpamentua martxan jarri zutenean, lanean hasi ziren. Ordu asko pasa zituzten lanean, baina alferrik, ez zuten-eta ezer aurkitu. Gaua heldu zen, eta goiz joan ziren lotara, hurrengo egunean eguzkia atera bezain laster esnatzeko.

Loraki kosta egin zitzaion loak hartzea. Oso urduri zegoen. Baina egun gogorra izan zen eta, azkenean, lo geratu zen. Hurrengo egunean, 05:30ak aldera esnatu ziren. Egunsentia zen. Kanpamentutik zihoazela, beste arkeologo-talde bat ikusi zuten pare-parean.

—Mmm... Barkatu, baina toki hau guk hartu dugu —esan zion Lorakek.

—Seguru?... —galdetu zuen talde hartako kapitainak, ahots maltzurrez—. Karla! Ekarri dokumentua, mesedez!

—Bai, jauna! —esan zion Karla izeneko neska batek, dokumentua eskura emanaz.

—Ikusi!

—Ez da posible! Zerbait gaizki dago! —esan zuen Lorakek, harrituta.

—Ez! Paper horiek ondo daude. Leku hau erosi dugu eta orain gurea da. Mesedez, hasi jasotzen zuen kanpamentua. Hamarretarako dena jasota nahi dut. Zuen lana bukatu da, eta orain gure txanda da. Ja, ja, ja, ja, ja! —buelta eman eta alde egin zuen barrez.

—A, ze marroia! Baina tipo hau benetan ari al da? —esan zuen taldeko mutil batek.

—Hala ematen du. Tira, ekipo! Buruak gora! Zerbait bururatuko zaigu! —esan zuen Lorakek bere arkeologo-taldea animatu nahian.

Goizeko hamarretarako dena jasota zuten. Penatuta handik alde egitera zihoazenean, ahots maltzurreko gizona azaldu zen.

—Ze pena! Poztu nau zuek ezagutu izanak —esan zien, ironiaz.

—Nor dela uste du harroputz horrek? —esan zuen Loraken taldekide batek ahopeka.

Eta handik alde egin zuten.

Loraken taldea joan bezain pronto, besteek beren kanpamentua jarri zuten. Gau eta egun pasa zuten lanean. Zerbait aurkitzen zutenean, argazkia atera eta instagramera igotzen zuten.

#Arkeologoak

#Kairo

#Egipto

#...

Bitartean, Lorak eta bere taldekoak lur jota zeuden.

—Nazkatuta nago. Hori gure lekua zen —esan zuen Lorakek amorratuta, instagrameko argazkiak ikusten ari zela.

—Baina zer egin dezakegu? —galdetu zuen taldeko batek, hasperen eginez.

—Ez dakit. Zuek uste duzue gezurretan ari dela?

—Ez dakit, baina ez zirudien oso erreala.


Orduan, Loraki ideia bat etorri zitzaion burura...

—A! Agian, paper hori faltsua zen! Kanpamentura joan eta dokumentu horiek faltsuak ote diren deskubrituko dugu —esan zuen Lorakek.

Denak ados zeuden. Beraz, ahots maltzurreko gizonaren kanpamentura hurbildu ziren isil-isilik, inor konturatu gabe. Bat-batean, ahots bat entzun zuten: liderra norbaitekin telefonoz hitz egiten ari zela zirudien.

—Bai, lasai! Dena kontrolpean dago. Dokumentua erakusteak funtzionatu du, eta ez dute susmorik.

—Ai, ama! Arrazoi geneukan! Baina orain nola salatuko ditugu? Guk badakigu dokumentua faltsua dela, baina nola frogatuko dugu? —galdetu zuen taldeko batek.



Itxaso Zaldua Peña

—Nik konponduko dut hori —esan zuen ahots batek.

Denek buelta eman zuten eta... Karla zen!

—Karla! Mmm... Zerbait ahaztu zaigu eta bila etorri gara —gezurra esan zuten, zelatan harrapatu zituztela pentsatuz.

—Lasai! Badakit benetan zertara etorri zareten —erantzun zien Karlak.

—Mmm...

—Lasai! Niri ere ez zait ezer gustatu gure liderrak nola tratatu zaituzten. Eta, gainera, erakutsi dizkizuen paperak faltsuak dira.

—Bai, orain ohartu gara. Baina ez dugu frogarik.

—Orain bai. Entzun duzuen deia grabatu egin dut, eta grabazioa zuen eskuetan uzten dut. Tori! Erabili nahi duzuegerako.

—Eskerrik asko! Zorretan gelditzen gara zurekin.

—Ez kezkatu horrekin. Baina, orain, grabazioa poliziarari erakutsi beharko zeniokete.

—Ondo da! Horixe egingo dugu. Eskerrik asko!

Grabaketa polizia-etxera eramán zuten.

—Damutuko zarete! —esan zuen ahots maltzurreko liderrak, poliziaren autoan sartzen zuten bitartean.

Liderrak isuna ordaindu behar izan zuen, eta ez zen oso merkea izan.

Lorakek eta bere arkeologo-taldeak kanpamentua muntatu zuten berriro.

Egunak pasa ziren eta gauza asko aurkitu zituzten, baina, bereziki, faraoi oso ospetsu baten hilobia: Tutankamonena!

Ikerketa bukatu zen eta Lorak oso pozik zegoen, gauza asko aurkitu zituztelako; bereziki, Tutankamonen momia. Sekulako aurkikuntzak egin zituzten! Lana bukatutakoan, kanpamentua jaso eta aurkikuntzak txukun-txukun bildu zituzten, ez apurtzeko. Eta beren etxeetara itzuli ziren.

Lorak eta bere taldeak lortutakoa mundu osoko albisteetan agertu zen. Oso ospetsu eta aberatsak bihurtu ziren. Lorakek irabazitako diruarekin museo txiki bat zabaltzea pentsatu zuen. Handik hilabete batzuetara, jendeak Loraken museoa bisitatzen zuen iada. Diru asko irabazi zuen museoko bisitekin, eta ikerketa gehiago egiten jarraitu zuen. Azkenean, Lorakek bere ametsa bete zuen.

Irati Sarasketa Ujvari



Alex Barranco Albeniz

Bikiak eta botila misterioetsua

Bazen behin, Holandan, Amsterdam aldameneko herri txiki bat, oso polita zena. Neguan hotz handia eta euri asko egiten zuen; udan, ordea, eguraldi ezin hobea zuten. Han familia bat bizi zen, oso gustura. Zoe eta Adam bikiak ziren. 11 urte zeuzkaten, eta txakur bat ere bazuten, Koko izeneko. Herriaren erdigunean bizi ziren aitarekin, ama zoritxarrez hil egin zen-eta gaixotasun baten ondorioz. Zoek ile gorri ondulatua zuen. Adamek ere ile gorria baina leuna zuen. Biek peka pila bat zeukaten aurpegian. Begi berdeak eta azal zuria zeukaten, amaren antzera. Aitak ere ile gorria zuen, baina begi urdinak. Itsas ikerlaria zen, eta itsasoko animalien bizitza aztertzen zuen. Txakurra *Border collie* bat zen, zuria eta orbain beltz gutxirekin.

Herriko ikastolan ikasten zuten. Ikastolatik ateratakoan, Zoe saski-baloia praktikatzera joaten zen. Adamek, berriz, futbolean jokatzen zuen. Eskola-orduz kanpoko ekintzak ez zituztenean, lagunekin jolastera joaten ziren. Lagunekin oso ondo pasatzen zuten: batzuetan bizikletan eta besteetan baloiarekin.

Udako egun eguzkitsu batean, bi bikiak eta aita hondartzara egun pasa joatea pentsatu zuten. Dena prestatu zuten: eguzkitako krema, bokadilloak solomo eta gaztarekin, palak ez aspertzeko, toallak, buzeoko betaurrekoak... Zoe eta Adam uretan ari ziren jolasten, eta kristalezko botila bat aurkitu zuen Zoek. Botilaren barruan paper bat zegoen. Uretatik lasterka atera ziren aitarengana. Papera atera zuten botilatik eta mezu bat zeukan idatzita. Mezuak esaten zuen norbaitek laguntza eskatzen zuela, ia galdutzat zegoen animalia bat berreskuratzeko.

Zoe eta Adam harrituta geratu ziren eta jakiteko gogoia sartu zitzaien. Arratsaldea hondartzan pasa eta gero, etxera abiatu ziren.

Gau hartan, afaltzen ari zirela, erabaki zuten hurrengo egunean ikertzen hasiko zirela botilaren jatorriaz. Hurrengo egunean, esnatu eta gosaltzera joan ziren beren etxe ondoko kafetegira. Adamek napolitana bat eta katilu bat esne eskatu zuen, Zoek kruasan bat eta Oreo gailetaren irabiatua hartu zuen. Aitak, berriz, ogi txigortua olio eta urdaiazpiko pixka batekin. Jan eta gero, liburutegira joan ziren eta aita atlasa irakurtzen hasi zen. Adamek eta Zoek, berriz, nabigazioko liburuak bilatzen hasi ziren. Hilabeteak pasatu eta gero, azkenean lortu zuten jakitea botila nondik zetorren: Brasiletik.

Orduan, Brasilerara bidaiatzea pentsatu zuten.

Zoe, Adam, aita eta txakurra Brasilerara iritsi ziren eta Salvador de Bahian hartu zuten ostatu, handik jarraitzeko ikerketa. Goizetan, ikerketari ematen zioten garrantzia, baina, arratsaldetan, aisialdirako denbora zuten. Arratsaldetan, askotan, hondartzara joaten ziren; batzuetan, berriz, Brasileko ohiturak, kultura eta gastronomia ezagutzeko tartea bilatzen zuten.

Ikerketan, berriz, beharrezko ikusten zuten, aurrena, mezua idatzi zuena identifikatzea eta, ondoren, jakitea zein zen arriskuan zegoen animalia.

Laborategi batera eraman zuten mezua, nork idatzi zuen jakin ahal izateko. Laborategiak aztertu eta esan zien emakume batenak zirela. Haren izena Simone zen. Simone Frantzian jaio zen, Parisen, eta ikerlaria zen. Ikasketak bukatu eta gero, Amazonasen desagertzeko arriskuan zeuden animaliak ikertu eta babesten zituen. Hirukotea, hurrengo egunean, Simone bizi zen herrixkara abiatu ziren. Oso herri polita zen, denetik zuena.

Hango basoan animalia pila bat ikusi zituzten, egundoko kolore pila zituztenak: loroak, tukanak, guakamaioak... Simonekin hitz egin eta gero, jakin zuten benetan arriskuan zegoen animalia tukana zela. Simonek esan zien bi eme zituela lokalizatuak eta bi ar aurkitu behar zituztela ezinbestean. Hirukotea prest zegoen Simoneri laguntzeko, eta martxan jarri ziren. Mundu guztiko zoologikoetara deitu zuten. Dei asko eta gero, azkenean, aztarna aurkitu zuten: Lisboako zoologikoan zeuden tukanak.

Handik bi astera heldu ziren bi tukan arrak: batek Leo zuen izena, eta besteak, Charlie. Lehenbiziko egunetan zaintzan eduki zituen Simonek eta, gero, bi tukan emeekin elkartu zituen. Hasieran beren harremana nahiko eskasa zen, arrotzak baitziren, baina, pixkanaka, elkarrengana hurbiltzen hasi ziren, Simonek erabilitako teknikei esker.

Bitartean, aita eta bikiak Amazonaseko tribuak ezagutzera joaten ziren, haien bizimodua ikertzeko eta laguntzeko. Zoe eta Adamen aitak irakurtzen eta idazten irakasten zien tribuko haurrei. Tribukoek belarrekin sendagaiak egiten erakusten zieten trukean. Denbora hartan, gauza asko ikasteko aukera izan zuen hirukoteak.

Uda bukatu bazain laster, familiak etxera itzuli beharra izan zuen. Baina Simoneri hitz eman zioten udaro itzuliko zirela Brasilera.

Igaro zen denbora, uda berriro iritsi zen eta, itzultzean, tukan laukotea hama-seiko taldea bihurtua zegoen. Berri oso pozgarria izan zen hura. Simonek egindako lan guztiak emaitza onak izan zituen, eta espeziea berreskuratzeko bidean zegoen.

Amaiur Urdangarin Egibar

Neguak dakarren hotza

Neguak dakarren hotza iritsi da jada,
hotzikara batek laztandu ditu nire barrenak.
«Hator-hator, mutil, etxera»
eta banoa ni afaltzera.
Mahaiaren distira, ordea,
ez da betikoa.
Norbait falta ote da?
Oihalaren usain leunak
gogora dakarkit sentimendu bat,
sentimendu bitxi bezain bizi bat.
Pilotarik gabeko pilotaleku bat bezala
sentiarazten nau besaulki hutsak.
«Kaixo, laztana»ren arrastorik ez,
ezta paellaren aromarik ere.
Gaurko gauak
iazko izarraren argia falta du,
baina ziur nago
argi horrek dirdirka dirauela
nire barrenean.

Ander Anton Pazon



June Duran

Mundua zaindu dezagun

Lurra da bizitoki
bezala duguna,
beharko luke izan
guztion kuttuna.
Izan gaitezen denok
beraren laguna,
zeren ematen digu
gaua ta eguna. (bis)

Gu planetari esker
gara lagunduak,
gure ekintzak, aldiz,
burugabekuak,
hondamendi ilunez
oso kutsatuak,
pixka bat laguntzeko
kendu plastikuak. (bis)

Planetari emaiogun
arnas ta bizia,
horrela ikusiko
da bere irria.
Aurrera eman dezagun
guk pausu handia,
semaforoa dugu
bero ta gorria. (bis)

Gutziz kutsatzen bada
galtzen da bizia,
laster puskatuko da
bizitzan katia.
Alferrik izango da
gero damutzia,
eta ez du balio
geldik geratzia. (bis)

Oraindik garaiz gera
buelta emateko,
egin beharra dugu
ondo garbitzeko,
ahalegin galanta
gehio ez okertzeko,
eta, hortik aurrera,
hobeto zaintzeko. (bis)

Gustatuko zitzaidan
behintzat kezkatzia,
lurraren hondamena
denok sentitzia,
planeta berde-urdin
distiraz jartzia,
hori lortu ta gero
garbi bizitzia. (bis)

Doinua: Konplize ditut eta

Unai Goikoetxea Gaztelumendi

Itzalen erreinua

Kaixo! Nire izena Peru da. 13 urte ditut eta Oñati izeneko herri txiki batean bizi naiz. Aitonak, txikitan, istorio ezinhobeak kontatzen zizkidan. Gauero-gauero desberdin bat. Baina, egun batean, beste istorio guztiei gailentzen zitzaien bat kontatu zidan. Horrenbeste gustatu zitzaidanez, handik aurrera, egunero istorio bera kontatzen zidan. Inoiz ez nintzen istorio hartaz aspertzen, baina, egun batean, nire aitona maitea hil egin zen. Hark kontatzen zizkidan istorio guztiak galdu ziren. Bat izan ezik: horrenbeste gustatzen zitzaidan hura izan ezik. Gaur, istorio hura kontatuko dizuet, izan ere, gaurko egunez, nire aitona 101 urte bete behar zituen.

Bazen behin Hodei izeneko mutiko bat. Hodeik 14 urte zituen eta amaren eta aitaordearen etxean bizi zen. Aitaordeak hiru alaba zituen: Enara, Arene eta Mara. Inoiz ez zuten bakean uzten eta nazka-nazka eginda zegoen.

Egun batean, baloiarekin jolasean hasi zen Mara eta, nahi gabe, lanpara bat puskatu zuen. Hodei egongela berean zegoela aprobetxatuz, Mara oihuka hasi zen:

—Aita! Hodeik baloiarekin zure lanpara gustukoena puskatu du!

Aita eskaileretatik behera jaitsi zen. Haren aurpegira begiratu eta segituan jakin zezakeen edonork haserre zegoela.

—Hodei! Zer uste duzu, etxea futbol-zelaia dela? —esan zion garrasika.

—Nik ez dut ezertxo ere egin! Mara izan da!

—Hodei, nola sinetsaraziko didazu Mara izan dela? —galdetu zion aitak—. Zu baino txikiagoa da-eta!

Aitak alabari begiratu zion eta Marak errugabe-aurpegia erakutsi zion.

—Ikusi begiratu hori! Ezinezkoa da bera izatea baloiarekin jolasean ari zena. Orain, sotoa garbitzera joango zara, zigor gisa, eta, gero, lanpara berdin bat erosiko didazu.

—Mesedez! Sotoa ez da inoiz garbitu eta lanpara ziztrin bat puskatzeagatik sotoa garbitzen jarri behar nauzu?

—Bai. Hurrengoan pentsatu gauzak egin baino lehenago.

Hodei sotoa garbitzera joan zen. Eskailerak hautsez beteta zeudenez, erratzaren bila joan zen. Erratzaren bila ari zela, bat-batean, pareta zegoen tokian, itzalez egindako tunel bukaezin bat ireki zen. Tunelaren ezkerretan bi itzal ezezagun agertu ziren. Soinu arraro batzuk egiten ari ziren. Hodeiri hitz egiten ari zirela iruditu zitzaion eta euskara ulertzen zuten frogatu nahi izan zuen:

—Kaixo! Zertan ari zarete?

—Nork hitz egin du? —galdetu zuen itzal handienak.

—Nik —erantzun zuen Hodeik, beldurtuta.

Itzalak, izututa, itzalez egindako tunel bukaezinean barrena joan ziren. Bat-batean, itzalez egindako tunela ixten hasi zen. Hodei harrিতuta zegoen. Tunelera gerturatu eta tunelak barrurantz xurgatu zuen. Hainbeste indarrekin erakarri zuen, konortea galdu zuela.

Hodei esnatu zenean, beste mundu batean zegoela iruditu zitzaion. Eta arrazoi zuen, beste planeta batean zegoen. Beste sistema batean. Beste galaxia batean. Zehazki, Utania galaxian, Adaria sisteman eta Bilaria planetan. Bilaria planetan edo beste modu batean esanda, Itzalen Erreinuan, den-dena itzala zen: etxeak, jendea, janaria... planeta guztia itzalez eginda zegoen. Bat-batean, norbaitek atzetik ukitu zuen Hodei.

—Nor zara zu?

—Kaixo! Ni zure itzala naiz. Hodei zara, ezta?

—Bai! Nola dakizu nor naizen?

—Bi gauzengatik: Lur planetan ikusten duzun itzala naizelako eta nik ekarri zaitudalako hona! —esan zion itzalak.

—Baina jakin daiteke zertarako ekarri nauzun?

—Bai, barkatu! Gure Adaria izarra eta zuen Eguzkia izarra hiltzeko zorian daude. Izarririk ez badago, itzalik ez dago eta, itzalik ez badago, ez dago bizitzarik. Orduan, beste izar batzuk sortu beharko ditugu, Lurreko inor konturatu gabe aldatu eta zu berriro zure planetara itzuliko zara.

—Baina, orduan, zertarako behar duzu nire laguntza?

—Izar berri bat sortzeko, gizakien odola behar da: itzalezko giltza magikoa hatz erakuslean sartu, buelta erdi bat eman eta, erortzen den odolarekin, izarra martxan jartzea lortzen da. Prest zaude guri laguntzeko?

—Bai, baina... min emango dit?

—Ez izan kakatia! Pixka bat bakarrik. Baina beste gauza bat ere badago: 48 ordu baino gehiago geratzen bazara Itzalen Erreinuan, betiko desagertuko zara nirekin batera —esan zion itzalak, tontakeriak alde batera utzita.

Itzalak dena erakutsi zion. Tailerrera joan eta izarrak sortzen hasteko unea iritsi zen. Hasteko, lehenengo izarra sortu zuten. Gero, bigarren izarra sortzen hasi ziren, baina gaua iritsi eta lotara joan ziren. Hurrengo egunean, esnatu eta segituan, tailerrera joan ziren izarrak sortzen jarraitzera. Bi izarrak sortu ondoren, Hodeiren odola ateratzea tokatzen zen. Hodei hamaka batean etzan zen. Bere hatz erakuslea erakutsi zien. Arnasa ozen hartu eta itzalez egindako giltza sartu zuen...

—Aaaaaaaaaaaaa!

Izugarrizko garrasia egin zuen. Itxuraz, min handia eman zion. Odol nahikoa atera eta gero, izarrak zeuden tokietara joan ziren. Hodei hamakatik altxatu orduko, bere itzalarengana hurbildu zen.

—Lehen esan didazu ez zidala min askorik emango eta arrazoi zenuen, ez dit min askorik eman, baizik-eta izugarria.

—Egia esan banizu, igual ez zenidan lagunduko-eta...

Azkar isildu zen. Hodeik perka bat eman zion bere itzalari. Itzalak mina sentitu orde, Hodeik sentitu zuen. Hasieran, arraroa iruditu zitzaion, baina gero konturatu zen bere itzalari eman ziola eta logikoa zela berak ere mina sentitzea. Iritsi orduko, Adaria izarraren kopiari Hodeiren odola bota zioten. Segituan piztu eta Adaria izarra zegoen tokira joan zen. Gero, odola xurgatzeko xiringa batekin Adaria izar zaharrari bizia kendu zieten.

—Hodei! Orain zure txanda da! Zure planetara bueltatzeko tunela irekiko dizut. Sortu berri dugun izarra, odola xurgatzeko xiringa eta zure odola hartu eta, tunela pasatu eta gero, izarrari zure odola bota eta Eguzkiari bere bizia kendu behar diozu.

Itzalak orduari begiratu zion, eta hiru minutu besterik ez zituen.

—Azkar! Hiru minutu besterik ez dituzu!

Tunela ireki eta xurgatu egin zuen. Oraingoan, ez zuen konortea galdu. Iritsi orduko, Hodeik bere odola bota zion Eguzkiaren kopiari eta askatu egin zuen. Beste izarra baino azkarrago joan zen bere tokira. Ondoren, Hodeik, xiringa hartu, eta Eguzkiari bizia kendu zion.


Hodeik berriro ere konortea galdu zuen eta, esnatutakoan, Itzalen Erreinuan bizi izandako guztia ahaztuta zeukan, eta bere etxeko sotoa garbitzera joan zen.

Espero dut nik kontatzen gozatu dudan bezala, zuek ere gozatu izana hau irakurtzen.

Ondo izan.

Peru

Iraia Peña Fernandez



Iraia Peña Fernandez

Gabonen bila

2122ko Gabonak ziren. Shua izeneko neska familiarekin bizi zen etxe handi batean. Oso familia alaia zen eta betidanik ospatu izan zituzten festak.

Urte hura oso gogorra izan zen berentzat. Lehenengo, etxez aldatu ziren eta, gero, lapurrak sartu ziren beren etxe berrira. Horrela joan zen urte osoa.

Gabonak iritsi ziren, behingoz. Urte osoa egon ziren horren zain. Lehenengo, zuhaitza jarri zuten, koloretako bolekin, eta, nola ez, izar hori-hori bat jarri zuten gainean. Oso polita gelditu zen. Geroago, girlandak jarri zituzten etxe guztian eta estalpea ere bai. Etxe guztia oso koloretsua gelditu zen. Baina Shuak zerbait falta zela pentsatzen zuen: azken ukituua. Baina ez zuten ezer aurkitu azken ukitu horrentzat.

—Aita, zerbait falta da, ez zaizu iruditzen? —esan zuen Shuak.

—Ez dakit, Shua... Nik ondo gelditu dela uste dut —erantzun zion.

Shua gau osoa horretan pentsatzen egon zen eta, azkenean, ukituaren bila irten zen. Etxetik Txina aldera atera zen. Nola? pentsatuko duzue. Berak eraikitako hegazkin txiki batean. Shuari gauzak eraikitzea asko gustatzen zitzaion eta, etxean, garaje oso bat zeukan trepetez bete. Hegazkin hori ez zen oso polita kanpotik, baina ederki egiten zuen hegan.

Ekialderantz abiatu zen, han Gabonak nola ospatzen zituzten ikusteko, ideiarene bat hartzeko asmoz. Hegazkina piztu zuen eta hegan hasi zen. Oso polita zegoen gaua: beltz-beltza zegoen, baina milaka izar ikusten ziren.

Jada iristear zegoela, Txinako argiak ikusi zituen. Non jaitsi pentsatzen hasi zen eta, bat-batean, hegazkinaren motorra gelditzen hasi zen. Ikusi zuen lehenengo etxearen teilatuan gelditu zen. Ez zekien nola konpondu hegazkina. Horretaz ahaztu eta ingurura begiratu zuen: Txinan, Gabonetako apaingarriak oso politak ziren, baina arraroak.

—Zer da hau? Polita da, bai, baina niri ez zait asko gustatzen. Agian, beste toki batean... —pentsatu zuen Shuak zalantzati.

Baina txinatar Gabon apaingarriak ikusi eta gero, buruan zeukan gauza bakarra hegazkina konpontzea zen. Erdetik ireki zuen, ea zer gertatzen zen han barruan. Ez zuen zorte handirik izan, motor berri bat behar baitzuen. Txinatar batzuen bilte-gira joan zen eta, kasualitatez, motor zahar bat aurkitu zuen, txoko batean botata. Shuak ez zekien balioko zuen, baina, badaezpada, hartu egin zuen. Berriz hegazkina zeukan lekura bueltatu, motorra hegazkinean sartu eta bikain gelditu zen. Hori konponduta, Paris aldera joatea erabaki zuen.

Shua iristeko desiratzen zegoen. Urrun zegoen arren, Eiffel dorrearen argiak ikusten zituen. Ilusio handia egiten zion Eiffel dorrea ikusteak, inoiz ez zuen-eta ikusi.

Azkenean, iritsi zen. Eiffel dorrearen punta-puntan jarri zen. Paris oso polita ikusten zen handik. Bistaz gozaten minutu batzuk egon ondoren, zerbait egin behar zuela gogoratu zen.

—Paris oso polita da eta asko gustatzen zait, baina ez du ematen Gabonak direnik. Nik zerbait alaiagoa nuen buruan —pentsatu zuen, etsita.

Handik ere alde egin zuen; oraingoan, Afrika aldera. Zerutik ez zuen ezer ikusten, basamortu infinituak izan ezik. Bat-batean, txori erraldoi bat gerturatu zitzaion, eta talka egin zuen Shuaren hegazkinaren aurka.

Segituan hasi zen lurrera erortzen, baina pixka bat gelditzea lortu zuen. Bazirudien Egipton zegoela, hiru piramide erraldoien aurrean. Barruan Gabonak ote ziren egiaztatu nahi izan zuen. Piramide handiengan sartu nahi zuen, baina ez zuen atea aurkitzen. Hegazkina hartu eta piramideari bira batzuk eman zizkion. Airean zebilela, piramideak zulo txiki bat zuela ikusi zuen eta han lurrerratu zen. Hegazkina tolestu eta motxilan sartu zuen, piramidean sartu aurretik.

Barruan ez zen ezer ikusten eta, beraz linterna bat piztu zuen. Harriz egindako bide bat ikusi zuen eta handik jarraitu zuen. Aurrera zihoala, ingurura begiratzen zuen baina ez zuen apaingarririk ikusten. Burua eskuinera biratu, eta erronbo formako ate susmagarri bat ikusi zuen. Ireki eta, barruan, milaka urteko sarkofago bat zegoen. Inguruan urrezko objektuak zituen, baina Gabonetako apaingarririk ez. Bat-batean, tranpa batean erori zen eta harrizko bola erraldoi bat erori zen zerutik. Horrek Shua korrika egitera behartu zuen.

—Baina zer da hau? Nik ez dut ezer egin-eta! Beno, hala eta guztiz ere, korrika egin behar dut —pentsatu zuen, eta korrika abiatu zen.

Horma baten atzean jarri eta, horrela, harriaren ibilbidetik alde egitea lortu zuen.

—Nolako eskapada egin dudan! —esan zuen arnasestuka.

Hori ikusita, lehenbailehen irten nahi izan zuen piramidetik. Kanpora eramaten zuten eskailera batzuk ikusi zituen eta, bi aldiz pentsatu gabe, hara jo zuen. Bidean kontu handiz ibili zen, beste tranpa bat ez zapaltzeko. Horrela, handik beste inongo tranpetan erori gabe irtetea lortu zuen. Eskaileretatik gora zihoala, apaingarririk ez zegoela pentsatzen hasi zen eta aurpegia triste jarri zitzaion.

Hegazkina hartu eta New Yorkera joan zen, Manhattanera. Oso urrunetik entzuten ziren newyorktarren garrasiak. Zarata asko egiten zuten. Denak kalean zeuden, nahiz eta gaua izan, Eguberriak ospatzen. Shuak hiria ondo ikusi nahi zuen eta, beraz, Empire State-aren puntara igo zen.

—Zer altu nagoen! Agian, erori egingo naiz —pentsatu zuen beldur puntu batekin.

Baina, gero, bentosadun zapatilak zituela gogoratu zen. Segituan jantzi zituen. Zapatila haiek oso erresistenteak ziren. Han goitik oso ondo ikusten zen Manhattan. Beste herrialdeekin alderatuta, Manhattan oso apainduta zegoen, argi pila batekin. Edozein lekutan zeuden argiak. Han goitik pertsonak puntu txiki bat ematen zuten.

Baina, han gainean zegoela, edonork ikus zezakeen Shua eta, orduan, jendea gauzak jaurtitzen hasi zitzaion, handik bota nahian. Shua berekin hitz egiten saiatu zen, baina, hain altu zegoenez, ez zioten aditzen eta, gainera, ez zuten euskara ulertzen. Shua nekatzen hasia zen, eta handik alde egitea erabaki zuen. Eskutan zuen hegazkina hartu, barruan sartu eta bidaian abiatu zen etxe aldera.

Hernanira bidean, Gabonetako ukitua ez zuela aurkitu pentsatzen zihoan. Oso triste zegoen. Txori guztiak Shuaren alde bererantz zihoazen, New Yorketik alde egiten. Zaratatik eta argitik ihes egiten zuten txoriek.

—Zerbait bururatu behar zait Gabonetako ukituarentzat —pentsatu zuen bere buruan.

Baina Ameriketatik Euskal Herrira, ez zitzaion ezer bururatu.

Etxera iritsi zen. Hegazkina garajea utzi, eta ohean sartu zen. Ukituaren gaiarekin oso triste zegoen, bere familiarentzat onena nahi baitzuen. Ohean ere horretaz pentsatzen egon zen. Ezin zuen lorik egin, baina, azkenean, loak hartu zuen. Segituan, ametsetan hasi zen eta, amets hartan, ukitua aurkitzen zuen, gehiegi nekatu gabe. Bere familia ondo pasatzen ikusten zuen. Denbora asko egon zen gauza bera ikusten, baina, ukitua zein zen jakitera zihoanean, esnatu egin zen. Shuak amorru handia zuen. Geroxeago konturatu zen egunargia zela. Ohetik jaiki, eta etxeoengana joan zen.

—Etorri hona, Olentzeroren opariak irekiko ditugu-eta! —esan zuen bere ahizpak.


—Bai. Orain noa —erantzun zuen Shuak.

—Azkar! —ilusionatuta zegoen.

Momentu hori ikusita, Shua konturatu zen bere familia zela falta zen ukitua. Haiek alaitzen zituzten Gabonak.

Egun hartatik aurrera, poz-pezik pasatu izan ditu Gabonak beti.

Irati Txintxurreta Goikoetxea



Ass-Malick Ndoyethiam

Abenduaren 18a

Abenduaren hemezortzia,
ezin da egun hobia:
Iruñean bertso-txapelketa,
Qatarren kopa horia;
han futbolaz gozatzen,
hemen bertso kantatzen,
idatzi da historia,
egun eder hau gozatzea guk
izan genuen zoria.

Maialen (e)ta Amets gure finala
errezital bat egiten,
biak ederki, garbi (e)ta txukun,
(e)ta txaloak ezin eten,
eta zer esan Messiz,
trofeoa mereziz,
ia galduz une baten,
munduko onenak tope_ari ziren
Iruñean ta Qatarren.

Bi lekuetan jende guztia
zeuden biba (e)ta txaloka,
bost urte luze pasa (e)ta gero
erabaki zen erronka,
nahiz berandu bukatu,
asko nuen gozatu,
bukatu zaigu borroka,
Maialenek lortu zu(e)n txapela
eta Messik, berriz, kopa.

Doinua: Iparragirre abila dela

Oier Iruretagoiena



Oier Iruretagoiena Iribar

Gure ibaia

Aizkorriko malda azpitan
ikusten duzu argia,
hasieran txiki eta mehar,
bukatu zabal-handia.
Berrogeita hamalau herritatik
jasoaz zure isuria,
gure herrian amaitzen duzu,
izena duzu Oria.

Batzuetan haserre eta harro;
bestetan, leun-leuna.
Aginako meandroak barna
bada oparotasuna.
Oriotarren pasioa da
zuregatik arrauna.
Hori guztia emategatik,
eskerrik asko, laguna.

Axel Atorrasagasti Pikabea



Monika Serobian

Arrautza frijitua

Behin batean, baserritar bat urruneko senide bat bisitatzera joan zen. Bidaia luzea zen, eta bidean gosetu egin zen. Ostatu batean gelditu eta ostalariak bi arrautza frijitu prestatu zizkion. Ziztu batean jan zituen biak eta berriro abiatu zen bizkor-bizkor. Bidean zihoala, gogoratu zen, ordea, ez ziola ostalariari bazkaria ordaindu.

Hurrengo urtean, berriro joan zen senidea ikustera. Ostatuaren paretik pasatu zenean, sartu eta han bazkaldu zuen ostera ere. Ordaintzeko garaia iritsi zenean, zera esan zion ostalariari:

—Aizu, iaz bi arrautza frijitu utzi nizkizun zorretan. Kobraidazu aurtengoa eta iazkoa.

Ostalaria pentsakor jarri eta honako hau erantzun zion:

—Hara! Ba, bi arrautza frijitu haiek jan ez bazenitu, txita bihurtuko ziren; eta txitak, oilo; eta oiloek arrautza gehiago errungo zuten; eta arrautza haietatik oilo gehiago jaioko ziren... Beraz, oilategi osoa zor didazu.

Elkarrekin haserretu eta epaitegira jotzea erabaki zuten. Emazteak lasai egoteko esan zion baserritarrari, berak azkar konponduko zuela auzia; baina, epaiketa hasteko orduan, emaztea ez zen inon ageri. Azkenean, ordu betera-edo, agertu zen. Epailea haserre zegoen:

—Ordu bete berandu etorri zara.

Eta emakumeak:

—Barkatu, jauna, baina soroan ibili naiz jo eta ke, patata frijituak nola erein asmatu ezinik.

—Baina, emakumea, nola ereingo dituzu ba patata frijituak soroan? Patata frijituak ez dute patata berririk ematen

—Hara! Horixe bera! —erantzun zuen andreak—. Horretan patatak eta arrautzak berdin-berdinak dira: arrautza frijituak ere ez dute txitarik ematen.

Eta halaxe libratu zen baserritarra, emaztearen argitasunari esker.

Nadir El Maimouni



Aimar Soriano Rojas

Bi pertsonaren bizitza

Zer egingo zenuke, bat-batean, ertzaintza-auto batean esnatukon bazina, gona eta kamiseta likido gorri batez bustita eta zure eskuak eskuburdinetan lotuta?

Ostirala zen, eta azterketak bukatuta nituen. Aita lanean zen, eta Anne, berriz, Atlantan. Ez nuen eskolara joateko gogorik. Gainera, Georgina eta Vega merkataritza-gunera joatekoak ziren goizeko hamarretan, eta ez nuke ezergatik ere galduko plan hori. Kevin eta JJ eskolara eraman behar nituen, aitaren kreditu-txartela lortu eta Mikeri gezurra esan behar nion. Ez zen erreza izango, baina ezinezkoa ere ez. Erlojuari begiratu nion: goizeko zortziak eta laurden. Nire bi anaiorde txikiak sukaldean sartu ziren eta, ziztu batean, gosaria prestatu nien: tostada bat tomate eta ahuakatearekin, esnea kakaoarekin, laranja-zukua eta bi arrautza frijitu bakoitzarentzat.

Gosaria bukatzean, jantzi eta hortzak garbitu zituzten, eta nik gauza bera egin nuen. Bitartean, Mike anaiordeak (ni baino bi urte gehiago zituena; hau da, 18) dutxa bat hartu zuen, jantzi egin zen eta, gero, kafe bat hartu zuen. JJ eta Kevin autoan eserita zeuden, eta Mike bidean zegoen, baina bera iritsi baino lehen, haren arreta jaso nuen, begi ertzetik ikusi ninduenean:

—Zer nahi duzu? —galdetu zidan.

—Nola dakizu zerbait nahi dudala?

—Aurpegian nabaritzen zaizulako —azkar aldatu nuen nire irribarre urduria, espresio izoztu bat jarrita, eta berak barre egin zuen—. Orduan?

—Nik eraman ditzaket eskolara?

—Zergatik?

—Nerabe bat naizelako, eta umezain bat behar ez dudalako —esan nion, oso serio.

—Eta nola jakingo dut zuk ez duzula piper egingo, eta eskolara joango zarela?

—App honekin nire kokalekua ikusi dezakezulako

—Mmm... Ondo da! Kontuz ibili!

—Eskerrik asko!

Besarkada bat eman nion eta agur esan genion hirurok elkarri.

Eskolara iristean, JJ eta Kevin agur esan eta, plana ondo ateratzeko, nire segapotoa bigarren nebari eman nion, 20€ ordainduta. Autoaren erlojuari begiratu nion: 09:30ak ziren. Handik hogeit hamar minutura merkataritza-gunean egongo

nintzen. «Ederki!» pentsatu nuen. Giltzak berriz sartu eta Britney Spears topera jarri nuen. Eraikin handiaren aurrean aparkatu nuen, errimela bilatzen ari nintzen bitartean.

Anneren gorputza odolez beteta etorri zitzaidan burura, bat-batean. Hotzikara batek hartu ninduen eta nire buruari galdetu nion ea nondik ote zetorren irudi hori. Gauean deitu egin beharko nioke Anneri, ondo dagoen jakiteko. Pentsamendu guztiak alde batera utzita, makillajea eman nuen eta eguzkitako betaurrekoak hartu nituen. Poltsaren hondoa belarritako batzuk ikusi nituen eta, nireak ez zirela konturatzean, zerbait arraroa gertatzen ari zela pentsatu nuen, baina ez nion garrantzirik eman eta elkargunera joan nintzen.

Goiz polit bat izan zen: erosketak egin, arropak probatu, gure gauzez hitz egin, manikura egin... Baina arraro sentitzen nintzen, nire burutik kanpo banengo bezala; dena irreala ikusten nuen. Gainera, ahotsak entzuten nituen buruan. Gezurra esategatik izango zen? Errudun-sentimendua? Dena dela, Ibuprofeno bat hartu nuen eta zinemara sartu nintzen nire bi lagun onenekin. Filma ondo egon zen eta hobeto sentitzen nintzen. Jatetxe batera joatea erabaki genuen.

—Mmm... Lasagnak itxura ona dauka, ezta? —galdetu zuen Vegak.

—Ez dakit, baina nik solomoa hartuko dut. Hori bai dagoela ona —esan nuen nik.

—A! Gauza bat... —hasi zen Gini (hala esaten genion Georginari).

—Zer gertatzen da? —harritu ginen gu, mahaiaren beste aldean.

—Lisak festa bat egingo du gaur bere etxean —esan zuen, poz-pozik.

—Zer Lisa? Lisa A. edo Lisa R.? Beste Lisa bat egongo al da?—galdetu zuen Vegak.

—Eta non bizi da? —galdetu nuen nik.

—Hondartzan. Oso ondo pasatuko dugu: edariak, musika, lagunak, ur beroa... Gainera, gutxi geratzen da uda izateko eta bero egiten du gauean.

—Oraintxe gogoratu naiz nire lehengusinak Lisa izena duela, baina Kanadan bizi da —jarraitzen zuen Vegak.

—Ondo da! Gaur festara goaz! —esan nuen nik. Georjinak txalo jo zuen, baina Vegak nahaste aurpegia zeukan.

—Baina zein da Lisa?

—Lisa Routledge —argitu zuen beste lagunak.

—A! Ondo da.

Bazkaria bukatzean, bakoitza bere etxea joan zen. Ni, lehenengo, nire sega-

potoaren bila joan nintzen, kontu handiarekin irakasleak ez topatzeko. Nire logela txukundu nuen eta, gero, dutxa bat hartu. Geroago, aita iritsi zen eta Annerekin komunikatzen saiatu ginen, baina «zerbitzuz kanpo» zegoela esaten ziguen. Anaien bila joan nintzen eta, gero, kafetegi batera joan ginen hirurak. Etxerako bidean, beste gorpu baten irudia agertu zitzaidan pentsamenduan eta, nahi gabe, bolante-kolpe bat eman nuen. Ezer gertatu baino lehen, errepidean ondo kokatu nintzen berriz.

—Ondo al zaudete? —galdetu nuen nik ere, arnas etenarekin.

—Bai —esan zuten biek batera eta, etxera iritsi arte, ez zuten ezer gehiago esan.

Etxera iristean, Mikek errieta egin zidan autoan gertatutakoagatik eta, espero nuen bezala, aitari esan zion; eta, espero nuen bezala, aitak zigortu egin ninduen asteburu guztian atera gabe. Bistan zen ez nuela hain erraz amore emango. Plana ondo ateratzeko, nire barneko Julia Roberts atera beharko nuen, baina, horretarako, pixka bat itxaron beharko nuen.

Zortziak laurden gutxi ziren eta aitak pizza batzuk eskatu zituen zortzietarako. Nire janari gustokoena sakrifikatu beharko nuen, baina festara joan behar nuen, nahitaez, nire estatus sozialari eutsi behar nion-eta. Erlojuari berriz begiratu nion eta 19:47ak ziren. «Ederki!». Ez zen oso susmagarria izango. Logelatik atera nintzen eta aitaren bulegora joan nintzen.

—Aita, gaizki sentitzen naiz —eta, sinesgarriago izateko, min keinu bat gehitu nuen.

—Zer gertatzen zaizu, maitea? Haserre zaude? —ez zuen ordenagailuaren pantailatik begirada kendu.

—Hilekoa jaitsi behar zait...

Orduan, bista altxatu zuen, eta banekien ez zuela jakingo zer esan, arazo horiek Annerekin konpontzen nituelako, baina aitak? Aitak ez zekien ezer.

—Zer behar duzu, laztana? —eta, poliki-poliki, nire ondoan jarri zen kezka keinuarekin.

—Ibuprofeno bat hartuko dut, eta ez baldin bazaizu axola, ez dut afalduko.

—Ondo da, maitea! Hartu behar duzuna. Zerbait behar baldin baduzu, deitu —besarkada bat eman zidan eta bere eserlekura joan zen.

—Azkenengo gauza bat, aita —esan nuen atea itxi baino lehen.

—Bai?

—Esan astun horiei ez molestatzeko, mesedez. Lo egin nahi dut.

—Ondo da! —esan zuen, eta bulegotik atera nintzen.

Azkar joan nintzen logelara eta kisketarekin itxi nuen atea. Nire bikinirik politena jantzi nuen, eta, gero, kamiseta eta gona txuri bat. Makillajez apaindu nintzen eta nire poltsa prestatzen bukatu nuen. Leihotik atera baino lehen, nire kokalekua itzali nuen eta, ondoren, argiak itzali nituen.

Etxetik kanpo nengoenean, Georginari deitu nion eta hark esan zidan bi minututan igaroko zela Vegarekin batera. Lisaren etxean geundenean, nire bi lagunak galdu nituen, baina ez nion garrantzi gehiegirik eman, ohikoa zen-eta gure artean. Edariaren bila joan nintzen sukaldera: alkohola, alkohola eta alkohola... ez zegoen beste ezer. Edari laranja bat hartu nuen eta jendearen artean dantzatzen hasi nintzen. Horrez gain, ez naiz gehiegi oroitzen beste ezertaz. Edari desberdinak edan nituen: arrosak, zuriak, urdinak... Eta burutik ezin nituen kendu arrapaladan zetozkidan irudi desatseginak: gorpuak, gorpu desberdinak, denak odolez beteta, edo balaz josiak, gorputz zatiak... Edaten jarraitu nuen, ahazteko, ondo pasatzeko, ohikotasunera bueltatzeko. Dantza egin nuen eta jolas batera jolastu nintzen; edateko jolas batera, itxuraz. Gehiago edan nuen. Askoz gehiago. Landare arraro bat erre nuen, eta igeri egin nuen hondartzan mutiko batekin.

Mutiko harekin logela batera igo nintzen, baina ez nuen ezer egin. Musu batzuk izan ziren, baina, aurrera joan baino lehenago, logelatik joan nintzen, beldurtuta bezala, ustez. Ez! Borrokatu egin ginen ni joan baino lehenago. Denetik deitu zidan eta baita nik ere, eta berak jo egin ninduen, bultzaka alde batera eta bestera, baina ez dakit nola... odolez zipriztindu zitzaidan kamiseta, eta mutilaren gorputza nire aurrean erori zen. Ikaratuta gelditu nintzen. Norbait hil nuen. Nik norbait hil nuen. Musika ez zegoen oso altu eta, minutu batera, hiru pertsona igo ziren logelara. Haien artean, Georgina. Lehenengo, nire aurpegia ikusi zuten; gero, gorputza; berriz, ni; eta, gero, arma. Hirurek, kontu handiz, atzera egin zuten. Eskaileretan behera jarraitu nien eta, iritsi nintzenean, egongelako jende guztiak bazekien zer gertatu zen. Kontu handiz jaitsi nituen azkenengo eskailera-mailak. Nire eskuan delituaren arma zegoen, eta beste eskuarekin lasaitzeko keinu bat egingen nien.

—Ez da dirudiena —esan nuen ahots finarekin.

—Kiara! Utzi arma hori! —ez dakit zeinek esan zuen, baina ahots tonuarengatik mutil bat zela ohartu nintzen.

—Utzi azaltzen! —esan nuen malko artean.

—Ki, mesedez! Utzi arma, mesedez! —esan zuen Georginak.

Malkoak lehortzen ari nintzen bitartean, jendea behatzen hasi nintzen: denek espresio berdina zeukaten, beldurra. Tristura handia sentitu nuen momentu hartan: denak beldurtuta zeuden nigatik. Ezer pentsatu baino lehen, pum! Beste gorpu bat. Jendearen oihuak entzun nituen, baina ez nion garrantzirik eman. Ezin nuen pentsatu. Haserre nengoen, eta ez nekien zergatik. Odola azkar zebilkidan gorputzean barrena, eta nire bihotzaren taupadak entzuten nituen. Nire amorru guztia

atera nahi nuen, eta, berriz, pum, pum pum! Zenbat bizitza akabatu ziren? Ez dakit. Nik, bakarrik, katua sakatzen nuen, behin eta berriz.

Orduan gogoratu nintzen amaren heriotzaren zergatiaz. Oso txikia nintzen, baina bai, festa batean geunden, amaren urtebetetze-festan, eta gizon batek akabatu zuen nire aurrean. Lotarako pilula bat eman zidaten eta, esnatzean, etxean nengoen eta ez nintzen gertatutakoaz gogoratzen. Gizon hura izan zen nire lehen biktima. 11 urte nituenean, berriz topatu nuen, eta amarekin egin zuen gauza bera egin nion nik. Horren ondoren, jendea hiltzen hasi nintzen, mendekua bilatzen, baina hurrengo goizean ez nintzen ezertaz gogoratzen, bizitza polit eta normala nuen...

Eta ezin izan nuen gehiago jasan: negarrez hasi nintzen, Mr. Brownen aurrean; hau da, ospitale psikiatrikoko psikiatraren aurrean. Hark begiratu eta ez zuen ezer esan. Egia esanda, nahiago nuen. Minutu batzuk pasa ziren eta berak hitz egin zuen:

—Ondo da! Zure jarrera ikusita, jakin dut. Zalantzatan nengoen, baina garbi dago —esan zuen, baina nik ez nuen ezer ulertzen.

—Baina zertaz ari zara?

—Nortasun disoziatiboaren nahastea daukazu.

—E? —ez nekien zer esan, eta zer pentsatu ere ez.

Tiroketaren ondoren, polizia etorri zen, eta atxilotu egin ninduten. Nire nahastea ikusi ondoren, proba psikiatrikoak egitera bidali ninduten, eta hemen nengoen, Mr. Brown-en aurrean, ulertzen ez nuen zerbaitez hitz egiten, bulego txuri-txuri batean, erlojuak 11:32 markatzen zuela eta nahaste aurpegiarekin.

—Nortasun disoziatiboaren nahastea daukazula. Nahaste disoziatiboak jasaten dituen pertsona batek errealitatetik ihes egiten du nahigabe eta modu ez-osasuntsuetan —arnasa hartzeko momentu bat hartu zuen—. Nahasmendu disoziatiboak erreakzio traumatikoetan gertatzen dira eta oroitzapen zailak kontrolatzen laguntzen dute. Sintomak amnesiatik hasi eta ordezeko identitateetaraino izan daitezke, eta nahaste motaren arabera dira neurri batean.

—E... eta... nik... —totelka hitz egiten hasi nintzen. Ez nekien zer esan. Oso zaila zen dena—. Nik hori daukat?

—Bai. Kontatu didazunaren arabera, bai. Amnesia zenuen, hau da, ez zinen hilketa guztiez gogoratzen, eta oraindik gauza gehiago faltako zaizkizu gogoratzeko. Zure trauma, zure amaren hilketa ikustea izan zen eta, zure burua zaintzeko, beste nortasun bat sortu duzu —nire aurpegia ikustean, barre txikitxo bat atera zitzaion—. Hobeto ulertzeko, adibide bat emango dizut: Zuk eguna normal pasatzen duzu, baina, lagunaren batekin borrokatzen zarenean, zure beste nortasuna ateratzen da eta berak jasaten du zure bizitzan gertatzen diren egoera txarrenak; eta horrela gertatzen da hilketa momentuekin. Zure beste nortasuna ateratzen da, eta zu ez zara ezertaz gogoratzen edo ez guztiaz.



Paula Veiga Morales

—Benetan?

—Bai, baina lasai: kontrolatzen ikasiko dugu eta zure portaera nola hobetzen den ikusiko duzu —gizonak eskua luzatu zuen eta nik gauza bera egin nuen.

Zer egingo zenuke bat-batean ertzaintza-auto batean esnatuko bazina, gona eta kamiseta likido gorri batez bustita eta zure eskuak eskuburdinetan lotuta? Zer egingo zenuke zure bizitza zaborretara bota izan bazenu? Zer egingo zenuke nor-tasun disoziatiboaren nahastea daukazula jabetuko bazina? Zer egingo zenuke hain hutsik sentituko bazina, ez dakizula nor zaren ere?

Irena Maciejewski

Udako ilunabarrak

Udako ilunabarrak,
ahazteko aldi txarrak.
Itzalen begirada
eguzkia joaten da.
Haizeak laztantzen dit azala,
lasai nabilela,
haize tristea,
salitrez betea,
olatuei lapurtuta,
usainez aberastuta.

Ez nago bakarrik,
izarren barrea dut lagungarri.
Barruko ametsak askatuta,
falta zaizkidanen oroitzapenak
dira lasaigarri,
izarren artean baitzaudete
eta, olatuen bidez,
zuen hitzek baketzen naute.

Leire Alberdi Aragoneses



Daniela Bernedo Amilibia

Nik pentsatzen dut

Nik pentsatzen dut
etorkizunean autoak erruberarik
gabekoak izango direla.
Nik pentsatzen dut
etorkizunean jende asko
pobrea izango dela.
Nik pentsatzen dut
robotek gure bizilekuak
suntsituko dituztela,
baina nire pentsamenduak esaten du
gu mundua suntsitzen ari garela;
ez zuk edo beste norbaitek, denok.
Guk aldatu behar dugu.

Hector Xabier Gonzalez



Jinhan Chen

2,42

Autoaren leihoak, basoaren hezetasunaren ondorioz, izoztu egin ziren eta ez zen kanpoko garbi ikusten. Eserlekuetako batean, eroso eta goxo, mutiko gazte bat zegoen, Joan. Vans-ak jantzita, galtza bakeroak *over size* estilokoak eta jertse zuriko poltsiko batean mugikorra zeukan, bere kanta gustukoena martxan zuela: *Summertime Sadness*, haririk gabeko kaskoak belarrietan jarrita entzuten ari zena.

—Iristen ari garela uste dut. GPSan jartzen duenaren arabera, gutxi geratzen da. Oria ibaia igaro dugu oraintxe bertan —irribarre egin eta Joani begiratu zion, baina istant batean desagertu zitzaion irribarrea.

—Utziko duzu zure mugikorra, eta egongo zara gurekin!

—Zer nahi duzu egitea, ama? Zuekin hitz egitea, hori bai aspertzea! —eta berriro itzuli zen Joan bere mundu birtualera.

—Horretarako etorri gara, Alberto, mugikor nazkagarri horiek baztertzeko eta inguruneaz gozatzeko —esan zion amak senarrari.

—Utzi mutikoari azkeneko momentuak konexioko lau marrekin. Hantxe goran ez da ezerekin geratuko-eta! —barre egin zuen aitak.

Autoa Altzoazpitik igaro zen; konkretuki, baseliza albotik. Elizak jakin-nahia piztu zuen gaztearengan, baina berehala jarri zuen berriro begirada ingurunean. Aurrera jarraituta, azkeneko etxeak utzi eta berehala, baso ilunean sartu ziren. Nahiz eta arratsaldeko bostak izan, azkar ilunduko zuela zirudien. Joan gazteari musika aldatu zitzaion; oraingo honetan, aurrekoa baino musika biziagoa. Horrek bere herriko kantak eta dantzak gogorarazi zizkion; festa-giroa faltan bilatzen zuen.

—Joan, Joan! —arreba txikia esnatu egin zen bere amets luzetik—. Nondik goaz?

—Galdu egin gara eta orain mendian biziko gara —iseka egin zion anaiak.

—Baina otsoak bizi dira basoetan eta ez pertsonak! Ez! Ez dut nahi kobazulo batean bizi—. Klara haserretu eta hitz egiteari utzi zion.

—Lasai! Txantxa bat da! Ez dakit non gauden. Zenbat geratzen da? —guraso-enganaz zuzendu zen eta haiek harriduraz begiratu eta ez zioten erantzun.

Bira handi bat eman zuten karretera beltzetik. Ez zen ezer ikusten itsaso natural hartan. Zuhaitzen tartetik igaro ostean, argi batzuk ikusi zituzten. Gehien ikusten zena kanpandorreko erlojua zen, agian bere altueragatik. Hasperen egin zuten gurasoek. Ailegatu zirela ohartarazi zioten Joani. Arreba, pozarren, saltoka hasi zen haurtxoentzako eserlekuan.



Hodei Gastiain Gurrutxaga

Herrixkako plazara iritsi ziren beren Peugeot 3008arekin eta, mugimendu leunez, aparkatu egin zuten. Berehala atera zuen Albertok autoaren giltza zulox-otik, eta familiari eskatu zion, mesedez, berehala ateratzeko autotik. Maletak hartu, maletategiko atea itxi eta Altzoko kaleetan behera joan ziren. Klara saltoka ari zen, besteak hitz egiten ari ziren bitartean. Haren poza eta lilura nabarmenak ziren, nahiz eta ilunabarrean ez ziren ondo ikusten. Maldan behera, Joan konturatu zen haur batek begiratzeko ziola. Berak ere aurpegi arraroa jarri ondoren, aurrera jarraitu zuen. Mugikorrari begiratu eta konturatu zen ez zeukala konexiorako marrarik, baina oraindik ez zuen itxaropena galdu. Alegia, agian, oporretako etxean ahal izango zuela konektatu.

—Asko falta al da iristeko? Nekatzen ari naiz. Seguru zaudete hemendik dela?
—galdetu zien Joaneke, etsita, benetan ezin zuelako gehiago ibili.

—Ez, berehala iritsiko gara —erantzun zion amak.

—Baina seguru zaudete ez dugula beste bide bat hartu, ezta? —errepikatu zion Joaneke, oraingoan kezkatuta.

Bat-batean, baserri bat agertu zen familiaren aurrean, hiru solairukoa eta oso material eskasekin egina. Euskal baserri tipikoa zen: lehenengo solairura arte zuria eta egurrezkoa, baina, hurrengo bi solairuak adreiluzkoak. Ingurunea oso ederra zen, baso berdetsu batek inguratzen baitzuen etxea eta bidexka eder bat zeharkatu behar zen baserriko sarrerako egurrezko ate erraldoira iristeko.

Albertok giltzak atera zituen poltsikotik. Sarrailan sartzerakoan, soinu arraro bat entzun zen, baina, hiru edo lau bira eman ondoren, atea ireki zen. Barrua ederra zen, oro har dena zuria, Joanen amak irakurtzen zituen aldizkarietan ikus zitezkeen etxe horietako bat zirudien. Joan, sukalde aldameneko eskaileretatik igo zen. Korridore luze bat zeharkatu ondoren, beste batera iritsi zen eta, hartan, ate bat bakarrik zegoen bukaeran. Ireki eta sartzen ahalegindu zen, baina atea itxita zegoen. Berdin zuen zenbat indar edota saiakera egin, ez baitzen irekiko. Buelta eman eta besteengana itzuli zen, gela aukeratzera. Lehenengoz, arrebarekin lo ez egitea eskatu zuen.

Ohean etzan eta mugikorra hartu eta piztu zuenean, iritsi zen bere amesgaiztoa: ez zeukan konexiorako ezta marra bat ere! Ezin zuen sinetsi gertatzen ari zena eta oso haserre joan zen gurasoengana.

—Noiz pentsatzen zenuten esatea ez dagoela konexiorik? Ezin dut sinetsi ni horrela tratatzea!—hori esanda, berriro bueltatu zen bere gelara.

—Etorri hona! Ez da gure errua! —erantzun zion amak, baina semeak ez zion entzun.

Mahaian eserita zegoenean, ezer egin gabe eta gurasoez bere baitan maldizioak esaten, euria hasi zuen, eta gero ekaitza bihurtu zen. Etxe osoa ezagutzeko aukera zuen, baita lehen ireki ezin izan zuen gelara itzultzeko ere.



Araitz Aizpitarte Iriondo

Gelatik atera eta, goiko eskaileretan esertzerakoan, ziurtatu zuen familia osoa egongelan zegoela. Lehenengo gelan sartzerakoan, ikusi zuen komun bat zela, lur koloretsua eta leiho txikia zeukana. Hurrengo bi gelak gurasoena eta arrebarena ziren, baina laugarren atea gela handi bat zen, altzari guztiak mantekin estaliak zituena. Oso arraroa iruditu zitzaion eta azkar atera zen handik. Berriz ere, korridorearen amaieran ireki ezin zen atea ikusi zuen. Gogoratu zen gurasoek beti eramaten zutela bihurkin bat, edozertarako behar bazuten ere. Kontu handiz, gurasoen gelan sartu eta bihurkina lapurtu ondoren, saiatu zen ate misterioetsua irekitzen. Lehenengo torlojua, bigarren torlojua, hirugarren torlojua... Azkenengoa kentzerakoan, sarraila erori zen.

Atearen bestaldean, eskailera batzuk zeuden: Zaharregiak ematen zuten, zapaltzeko, baina, hala ere, igotzeko ausardia eduki zuen. Ganbarara iritsi zen. Toki iluna zen, kaxez beteta eta nonahi ikus zitezkeen baserriko ohiko tresnak: sega, aitzurra, sokak eta abar.

Istant batean, tximista batek jo zuen teilatuan, eta Joanen aurre-aurrean egin zuen eztanda. Eztandaren ondorioz, Joan atzeraka erori eta buruan kolpe bat hartu zuen, konortea galduz. Gerorago, esnatu zen momentuan, gizon handi-handi bat zuen begietara so. Beldurtuta, zutitu egin zen. Ezezagunari goitik behera begiratu eta gero, konturatu zen ez zela gure garaiko pertsona arrunt bat; agian, altueragatik eta jantziengatik izango zen. Gizonak eskuarekin agurtu zuen. Izututa, Joaneke buelta eman eta arreba ikusi zuen, aho bete hortz.

—Zein da zure laguna? —galdetu zion arreba txikiak.

—Ez daukat ideiarik eta hobe da ez jakitea. Tximista batek nire ondoan jo duenean agertu da. Ikusten da ez dela gure garaikoa —erantzun zion Joaneke.

—Zer esan nahi du «gure garaikoa»? Oraingoa, alegia? —galdetu zuen arrebak, harrituta.

—Bai, horixe; izan ere, ez dakit edo zirku batetik alde egin duen mozerro horrekin edo argazki zahar batetik atera den. Gure aitona ematen du bere baserriko argazkian, baina, jakina, aitona altueran metro bat gutxiago zen!

—Egia! Zu baino bi aldiz handiago da, baina ez horregatik mindu bere sentimenduak. Seguru aski, bera ere, gu bezalaxe, beldurtuta dago. Ni ere egongo nintzateke.

Hori esan ondoren, neska txikia gizonarengana gerturatu eta nongoa zen galdetu zion.

—Altzokoa. Altzoko erraldoia naiz —erantzun zuen gizaki altu hark.

—Zer zirkutatik dator pailazo hau? —esan zuen Joaneke, Klarari alde egiteko agintzen zion bitartean.

—Zuekin joan naiteke? Ez dakit non nagoen. Mesedez, lagundu! —erregutu zuen gizonak.

—Zu hemen geratu! Ez dut nahi nire gurasoak zurekin topatzea —agindu zion Joanek.

Ondoren, Klarak eta Joanek eskailerak jaitsi zituzten, gizon puska hura atzean utzita. Afaltzeko ordua zenez, sukaldeko mahaian eseri zen familia osoa. Janari goxoa jan ostean, hizketan aritu ziren Altzoko historiaz eta izen batek atentzioa eman zion Joani: «Altzoko erraldoia». Afaria bukatu ondoren, familia osoa egongelan geratu zen film bat ikusten, Joan izan ezik; izan ere, Joanek erraldoiari kasu egitea erabaki zuen eta, horretarako, berriro itzuli zen ganbarara eta, egia jakin nahi zuenez, galdera garrantzitsu hau egin zion:

—Benetan, Altzoko erraldoia al zara?

Besteak, irribarrez, baietz erantzun zion. Joanek, azkenean, onartu zuen aurrean zuen izakiak 2,42 metro neurtzen zituela eta Altzoko pertsonarik altuena zela.

Ia gau osoa hitz egiten pasa ondoren, Altzoko erraldoia, Migel Joakin, ganbaran geratu zen eta Joan ohera joan zen. Ekaitzak gau osoa iraun zuen eta, nahiz eta oso arraroa izan, giro beldurgarri hark ekarri zuen Migel Joakin. Ohean zegoen bitartean, Joan galdera berari bueltaka aritu zen denbora guztian; nola itzuli erraldoia bere garaietara, XIX. mendera alegia? Izan ere, gau hartan Migel Joakinek aitortu zion bat-batean agertu zela etxe hartan eta berriro bueltatu nahi zuela bere jatorrizko toki, momentu eta girora. Azkenik, Joanek gogoratu zuen, norvegiar mitologian, Jainkoak tximisten bitartez mugitzen zirela toki batetik bestera eta pentsatu zuen, kasu honetan ere, beste tximista batek jotzen bazuen, berriro gertatuko zela mugimendua. Berehala, mugikorra hartu zuen, baina, konexiorik ez zegoenez, ezin izan zuen jakin noiz izango zen hurrengo ekaitza. Etsita, erabaki zuen saiatuko zela berriro erraldoia XIX. mendera itzultzen, baina ez zuen agintzen lortuko zuenik.

Hurrengo goizean, gosaritik janari apur bat hartu eta ganbarara joan zen, Klararekin batera. Gurasoak mendi buelta bat ematera joan zirela aprobeztatuz, anai-arrebak, erraldoiarekin batera, ezkutuko belardi batera joan ziren ekaitz ondoko eguzki goxoaz goatzera. Hori bai, erraldoia etxetik ateratzeko, arazo asko eduki zituzten, ez baitzeuden atek prestatuta 242 zentimetroko pertsonarentzat. Belarretan eseri ziren, Klara belardietan korrika zebilen bitartean.

—Nik ere banituen arreba txikiak. Gustatzen zitzaidan haiek pozik ikustea jolasean, ni baserrian lanean ari nintzen bitartean. Egun batean, gizon bat gerturatu eta esan zidan: zenbat diru nahi duzu hango bi neskato haiengatik? Haserre bizian, zerri hura Altzoazpitik barrena eraman nuen arrastaka. Ez nuen onartuko, inondik inora, ezer txarrik gertatzea nire arrebei. Babestu egin nahi nituen eta, azkenean,

hil egin nuen zerri hura. Gaur egun ere, oraindik, errudun sentitzen naiz, benetan, egin nituen gauza askorengatik. Zuri horrelako gauzarik ez gertatzea nahiko nuke.

—Lasai, nire arreba da ulertzen nauen pertsona bakarra. Horrexegatik da nire lagunik onena eta beti horrela izatea nahiko nuke.

—Baina gauzak azkar aldatzen dira eta, niri gertatu zitzaidan bezala, joan egiten dira edo beste pertsona batzuk bilakatu. Kontuz, zenbat eta gehiago babestu, mina hartzen dutenean, eztanda are eta indartsuagoa izango da.

—Gogoan izango dut zuk esandakoa, lasai. Txoriei ere hegan egiten utzi behar zaie beren bidea segi dezaten.

Gurasoak etorri aurretik etxeratu zuten erraldoia. Familia osoa berriro elkartu zenean, bigarren aldiz eseri ziren denak mahaiari bazkaltzeko. Oraingoan, ordea, gauzak aldatu egin ziren. Joan ez zen betikoa; izan ere, gurasoekin igaro zuen bazkaritako denboran, erregeak balira bezala tratatu zituen, eta baita Klara txikia ere. Joanen etika zeharo aldatu zen, Migeli esker, eta orain beste bat ematen zuen.

Bazkaltzen amaitutakoan, anai-arrebak gora igo ziren, baina, oraingoan, Sara zuten beren atzean. Sarak ganbarara eramatea eskatu zien, zerbait ezkutatzeko ari ziren susmoa zeukalako. Iritsi baino lehen, Klarak korrika igo zituen eskailerak, erraldoiari abisatzeko. Hura zutabe eta kaxa batzuen artean etzan zen, ikusi ez zezaten. Bestalde, mahai zahar baten gainean jarri zuen goizean erabilitako mantel zikina, jolasean ibili izanaren itxura emateko. Ama iritsi zenean, hirurak eseri ziren mahaiaren inguruan, eta Altzoko erraldoiaz esaten ziren kontuak aipatu zituzten. Migel Joakinek berari buruz kontatzen ziren hainbat istorio eta gertakizun entzun zituen. Elkarrizketa luze baten ondoren, ama joan eta haurrak ganbaran geratu ziren. Erraldoia ezkutalekutik atera zenean, malkoak zituen begietan. Orain guztia zekien, baita nola eta noiz hilko zen ere. Larrituta, ahal zuen bezain azkarren, etxearen atzeko atetik alde egin zuen. Sortu zuen zarata nabarmena izan zen.

Baso beltzean sartu zen. Seiak inguru ziren. Bitartean, Klara eta Joan nora joan ote zen pentsatzen jarri ziren. Azkenik, Joanez erabaki zuen ateratzea eta erraldoiaren bila hastea. Atea ireki bezain pronto, haren oinaren aztarnak ikusi zituen lurrean. Mugikorreko linterna eskasarekin, basoan sartu zen.

Zuhaitzen eta belar luzeen artean ere bereizten ziren haren oinak. Aztarnei segika, maldan behera joan zen, baina bideak ez zeukan bukaerarik. Bat-batean, argi bat ikusi zuen: auto baten argiak ziren. Zuhaitz luze bat saihestu ondoren, hiru metroko amildegia zegoela konturatu zen. Bi aldiz pentsatu gabe, salto egin zuen.

Salbu iritsi zen behera, eta konturatu zen oin-markek jarraitzen zutela. Marken bidetara segitu zion korrika eta, hainbat aldiz erori ondoren, Alzoazpira iritsi zen. Arratsaldeko sei t´erdiak ziren, gaua jada, baina oraindik ikusi ahal zuen eliza bere aurrean.

Elizara sartu zenean, hantxe zegoen, erdi-erdian, bere altxor ezkutua: Migel Joakin Elizegi. Harengana gerturatu zenean, Joan konturatu zen ekaitza gerturatzeko ari zela Altzoazpira. Beren artean hizketan ari ziren bitartean, tximistek eta trumoiak indarra hartu zuten kanpoan. Horietako batek kanpandorra jo zuen. Elektroiek harriekin talka egitean, tximistak elizako lurra jo zuen eta, instant batean, bi izakiak jo zituen bortizki. Joan, beste behin ere, lurrera erori zen, baina, oraingo honetan, esnatu zenean, ez zegoen inor. Konturatu zenean zer gertatu zen, pozik atera zen handik. Bidean gora abiatu baino lehen, atzera begiratu eta baseliza sutan zegoela konturatu zen. Une hartan bost axola berari; izan ere, erraldoiaren arazoa bukatu zen, azkenean.

Afarira iristeko denbora eman zion eta senitartekoekin berriro elkartzeko aukera izan zuen. Berdin zitzaion zer gertatu zen arratsalde hartan, maite zituen pertsonekin baitzegoen eta erraldoia ere horrela egongo zela imajinatu zuen.

Ander Uranga

Mugikorraren zuloan

Bazen behin Anne izeneko neska bat, 17 urtekoa. Londresen bizi zen familia aberats batean, ama, aita eta anaiarekin. Ez zen pisu arrunt batean bizi, ikuspegi ederrak zituen txalet handi eta elegante batean baizik. Anne mugikorrarekin zegoen beti, bizitzako gauza garrantzitsuena izango balitz bezala erabiltzen zuen. Askotan, bere gurasoek zerbait esan eta ez zien kasurik egiten, sare sozialetan erabat murgilduta zebilelako.

Uda heldu zen, eta Annek berdin-berdin jarraitzen zuen. Beraz, gurasoek, oso larriturik, hauxe adostu zuten: aiton-amonen baserrian pasatuko zuen Annek uda osoa, mugikorrik gabe. Erabakia hartu bezain laster, alabari kontatu zioten:

—Kaixo, Anne! Zer moduz?

Isiltasuna nabari zen etxe hartan, lehen esan bezala, mugikorrari itsatsita baitzegoen.

—Ane, erantzun behar al diguzu? —esan zion aitak, tonua igoz.

—Zeeeeeer? —erantzun zion Annek, zakar.

—Zure mugikorrarekin igarotzen duzun denbora kontuan hartuz, hau erabaki dugu aitak eta biok: uda aiton-amonen baserrian igaroko duzu, mugikorra hemen utzita.

—Ez zara benetan ariko, ezta? —erantzun zion alabak, irribarre eginez.

—Bai, Anne! Honek ezin du horrela jarraitu eta irtenbide ona iruditu zaigu. Gainera, amonari esan diogu jada eta oso pozik jarri da —esan zion amak, serio.

—Zer? Ni ez naiz inora joango —petraldu zen Anne.

—Anne, jada erabakita dago, ez dago atzera bueltarik. Beraz, bihar goizerako maleta eginda ikusi nahi dut, 10:00etan abiatuko gara-eta —esan zion aitak burugogor. Eta, amarekin batera, logelatik irten zen.

Hurrengo goiza iritsi zen. 9:30ak ziren eta Anne oraindik ohean zegoen, lo itxurak eginez. Orduan, ama logelara joan eta ohetik irtenarazi zuen. Jarraian, amak Anneri galdetu zion ea maleta egin zuen eta, alabak ezetz erantzun ondoren, maletarik gabe joango zela esan zion; hau da, arroparik hartu gabe. Annek, hori entzun bezain laster, azkar-azkar gosaldtu eta maleta egin zuen. 10:00ak heldu bezain pronto, etxeakoak agurtu, mugikorra utzi eta autora sartu zen amarekin batera, nahiko kopetilun. Bidaian zehar, Anne 10 aldiz kexatu zen gutxienez, mugikorraren beharra zuela esanez, baina amak esan zion bere onerako egiten ari zirela eta behar hori gutxitzen joango zitzaiola egunak aurrera joan ahala.



Victoria Conejo Przybysz

11:00ak aldera iritsi ziren baserrira. Anne autotik atera zen eta aitona ikusi zuen itxaroten etxe aurrean, esku artean arkume bat zuela. Hori ikusirik, Anne geldigeldi geratu zen errepidean, blokeatuta bezala. Horregatik, amak zer gertatu zen galdetu zion eta berak ezer pasatuko ez balitz bezala, aurrera jarraitu zuen. Aitonak baserriko gune eta animalia berriak erakutsi zizkion eta berehala jarri zuen lanean: porruak ilaran ondo jartzen, limoiak zuhaitzetik jasotzen, barazkiak ureztatzen... baita patatak lurpetik ateratzen ere. Gero, oiloei artoa ematen jarri zuen eta, era berean, arrautzak biltzen, behiei belarra ematen eta esnea marmitetan biltzen erakutsi zion. Eguna txerriei etxeko soberakinak emanez bukatu zuen.

Horrela pasa zituen Annek egunak, asteak eta hilabete osoa. Azkenerako, oso gustura zebilen betebehar horietan, eta baserritar peto-petoa bihurtu zen, mugikorren inguruko bizimoduaz erabat ahaztuta.


Hilabete bat eskas geratzen zitzaionean, 4 urteko lehengusina azaldu zen baserrira, haren gurasoak Hawaiiera joan zirelako bidaian.

Egun hartatik aurrera, Anne lehengusinarekin irakasle eta zaintzaile bihurtu zen, eta baserriko eginbeharrak erakusten zizkion, zaintzearekin batera.

Bost egun falta ziren uda bukatzeko eta, beraz, etxera bueltatzeko. Annek ez zuen, ordea, lehengo bizimodu hartara itzultzeko gogorik. Halere, nahitaezkoa zenez, azkeneko egunak ahalik eta gehien disfrutatzea erabaki zuen aitona-amonekin eta lehengusinarekin batera.

Heldu zen eguna eta Londresera itzuli zen. Amak mugikorra bueltatu ahala, hauxe esan zion Annek: «Lasai, ama! Uda honetan gauza asko ikasi ditut, baina, batez ere, bizitzako gauzak gehiago baloratzen eta mugikorrik gabe bizitzen ikasi dut. Beraz, beharrezkoa denean bakarrik erabiliko dut, eta gainontzeko denbora, bizitzak ematen dizkigun egoera ederrak eta baliotsuak bizitzen aprobetxatuko dut. Azkenik, eskerrik asko aukera bikain honengatik, ikasgai garrantzitsua izan baita niretzat, eta irrika handiz joango nintzateke datorren urtean ere».

Elene Urrestilla Uranga



Iraia Perez Gozategi

Agur

Agur esatera nator.
Agur gure momentu guztiei.
Agur gure oroitzapenei.
Agur guztiari.

Oraindik oroitzen naiz
ikusi zintudan lehen aldiaz.
Zure kafe koloreko begiak,
hiltzen ninduen begirada hura.

Dena zinen niretzat.
Nire hutsune guztiak betetzen zituena,
iluntasunean argia pizten zuena,
irribarre bat ateratzen zidana.

«Non egon zara nire bizitza guztian?»
galdetzen nion neure buruari
eta ezin nuen ulertu
inoiz ezezagunak izan ginenik.

Baina, orain, horixe gara:
berriro ezezagunak.
Iragana duten ezezagunak;
ezezagunak, oroitzapenekin.

Baina inoiz ez zara
niretzat izango.
Ez guztiz.

Ezingo dut ukatu ikusten
zaitudanean sentitzen dudan ziztada.
Ezingo dut ukatu korrika itzuliko nintzela,
zuk eskatuko bazenit.

Baina hori ez da inoiz gertatuko.
Bizitzak bide desberdinetan jarri gaitu
eta aurreraka oinez jarraituko dugu,
inoiz batera ibili ginenik ahaztuta.

Uxue Etxeberria Erzilla



Ibai Solaberrieta Moreno

Bizitzaren pantaila

Bizitza pantaila baten atzean,
segundoak minutu,
minutuak ordu,
goizak gau,
eta gauak egun...
Eguzkia, euria, haizea, elurra...
Zer giro? Ez dakit.
Mendia, itsasoa, hondartza...
Non daude? Ez ditut ikusten...
Amona, aitona, lagunak...
Non dira? Urruti.
Zer nahi dut?
Pantaila atzean utzi eta bizi.

Lander Lazkanotegi Arriaga

Izan ez ginen guztia

Sofia naiz. 16 urte ditut eta Iruñean bizi naiz. Anai txiki bat dut, Izan izenekoa, 14 urte ditu eta oso ondo moldatzen gara. Gure gurasoak bananduta daude eta Aste Santutan gure amarekin egotea tokatu zitzaigun.

Autobusean gindoazen herrira, Aste Santua han pasatzeko. Iristeko gogo handia genuen, familia eta lagunekin elkartzeko. Bi orduko bidaia oso mantso ari zen pasatzen, ordua begiratzen minutuero, amarekin hitz egiten edo Izan zirikatzen.

Iritsi bezain laster, aitonari besarkada bat eman eta logeletara joan ginen, maletak desegitera. Jarraian afaldu eta amari baimena eskatu genion ateratzeko. Izan eta ni elkarrekin atera ginen buelta bat ematera. Berandu zenez, ez genuen espero norbaitekin topatzea, baina, paseatzen ari ginela, mutil bat aurkitu genuen: nire lagun onena zen, Ian izenekoa. Korrika etorri zen besarkada bat ematera eta gurekin ibili zen.

Etxera iristean, oso pozik nengoen. Denbora asko neraman Ian ikusi gabe eta asko emozionatu nintzen. Gainera, gonbidatu egin ninduen, hurrengo egunean, berarekin eta bere lagun batzuekin igerilekura joateko.

Hurrengo egunean gogo handiarekin jaiki nintzen. Gosaria azkar jan nuen, prestatzeko denbora edukitzeko. Ordua iritsi zenean, Iani deitu eta behera jaisteko esan zidan. Azkar batean eskaierak jaitsi eta bere lagunak ezagutu nituen: Victor, Noah, Enzo eta Lian.

Igerilekura bidean, hitz egiten egon ginen eta oso ondo moldatu ginen elkarrekin. Ian pixka bat baldarra zen, baina oso maitekorra; Victor, bromazalea; Noah, oso berritsua eta alaia; Enzo, isila; eta Lian, oso aktiboa.

Noah asko gustatu zitzaidan: beti gauzak kontatzen, denei barre eginarazten... Momentu batean, despistatu egin nintzen eta, bat-batean, Ianek igerilekura bota ninduen. Justu Noahren ondoan erori nintzen. Noah atera eta Ian bota zuen uretara. Nik eskerrak eman nizkion hori egiteagatik eta, etxera bueltan ginela, elkarri telefonoa pasatu genion hitz egiteko.

Hurrengo egunean, Noah eta ni bakarrik gelditu ginen, beste guztiek ezin zutelako. Adostu genuen gauean geratuko ginela, kalean; izan ere, bero handia egiten zuen eta ez geneukan gogorik ateratzeko. Hasieran, ez genekien zer egin, baina, azkenean, erabaki genuen paseoko eserleku batean egotea eta gauza asko kontatu genizkion elkarri. Niri asko gustatzen zitzaidan Noahri entzutea, oso ahots lasaia zeukan-eta. Etxerako bidean, esan zidan nirekin etorriko zela, ni bakarrik ez uzteko. Hori asko gustatu zitzaidan. Agurtzeko, besarkada bat eman eta gabon esan zidan. Logelan nengoenean, nire lagun onenari deitu nion, pasatu zena kontatzeko, eta hark esan zidan berataz nengoela, baina nik ezeztatu egin nion eta, hortaz, hitz egiteari utzi genion. Goizean oso pozik nengoen. Amak galdetu zidan zer neukan eta ezer ez nuela esan nion. Geroago, Izan nire logelan sartu eta dena kontatzeko esan zidan. Dirudienez, bere lagun batek ikusi gintuen eta esan egin zion. Justu momentu hartan, Noahk idatzi egin zidan eta Izanek mobila kendu eta bidalitakoa irakurri zuen altuan: «Kaixo! Atzo oso ondo pasatu nuen zurekin. Nahi duzu gaur ateratzea?».

Txundituta geratu nintzen. Ez nuen sinesten, baina, aldi berean, hunkituta nengoen. Azkar batean erantzun nion. Izan niri begira zegoen; bazekien zer gertatzen zen, ezagutzen ninduelako. Orduan esan zidan, zerbait egiten bazidaten, hil egingo zituela. Nik esan nion ez kezkatzeko hortaz, oraindik elkar ezagutzen ari ginela.

Aste osoa Noahrekin edo taldearekin pasatu nuen, gauean ateratzen, igerilekura joaten eta futbol-zelaira joaten. Gauetan Noahrekin bideo-deia egiten nuen. Beti Izan sartzen zen erditik eta ikusten zuen niretzat ona zen ala ez. Kostatu zen, baina, azkenean, proba gainditu zuen eta Izan eta bera oso ondo moldatu ziren elkarrekin.

Azkenengo astean, familiarekin denbora gehiago pasatu nuen, baina, azkenbigarren egunean, taldearekin geratu nintzen, agurtzen hasteko. Denek agurtu ninduten, Noahk eta Ianek izan ezik, berak nirekin egongo zirelako azken egunean.

Azken aurreko egunean, goiz guztia Ianekin egon nintzen eta, arratsaldean, Noahrekin, gauza bat esan nahi zidalako. Paseoko eserleku batean jarri ginen eta, bat-batean, elkarri begira geunden aurrez aurre. Asko kostatu zitzaion esatea, eta niri sinestea: esan zidan nitaz zegoela eta ezin zidala utzi joaten hori jakin gabe. Nik besarkada bat eman nion, baina ez zen ezer gehiago pasatu, ni oso kezkatuta nengoelako han ez bizitzeagatik. Azken egunean, Ianek besarkada handi bat eman zidan. Ia negar egin nuen, baina Noah ikusi nuen urrunetik; besarkada bat eta musu bat eman zidan kopetan, esanez berarekin ez ahazteko eta nire zain egongo zela. Horren ondoren, autobusera joan ginen. Negarrez nengoen. Izan niri laguntzen saiatzen zen, baina nik ez nuen nahi inorekin egon. Bidaia osoa leihotik begira pasatu nuen, irudikatuz izan ez ginen guztia.

Rosa Pilar Flores



Fabio Cauà Souza Brizeño

Ametsetako lorategia

Oinean zerbait sumatu nuen eta pum! zulo barrura! Ematen zuen txirrista erraldoi batetik jaisten ari nintzela, eta ari nintzen. Tripak irteten ari zitzaizkidala iruditzen zitzaidan: Ikara eta adrenalina nire gorputzean sartuta, biak atera nahian. Emozioz betetako abentura. «Zer ari da gertatzen? Zergatik ari naiz txirrista erraldoi honetatik jaisten?» pentsatu nuen. Hau da, hau, esperientzia bitxia! Baina ez pentsa oso abentura atsegina izan zenik; arraroa izan zen. Baina aurrerapen txiki bat egingo dizuet: orain salbu nago. Egia esan, orain, nire etxean nagoela manta batekin nire istorioa idazten, beste begi batzuekin ikusten da kontua; hala ere, oraindik onartzeko oso gogorra egiten zait eta negargura eta guzti sartzen zait. Orain dela lau egun norbaitek esango bazidan zer gertatuko zitzaidan, seguru aski erotzat joko nuen edo barre egingo nion aurpegira.

Bueno, historia kontatzen pixka bat atzekoz aurrera hasi naiz, baina, oraingoan, hasieratik hasiko naiz. Tira, lehenik eta behin aurkeztu egingo naiz: Adara naiz. Badakit, pentsatuko duzue zuen burmuin likatsuetan, nork izena du mundu honetan Adara? Bueno, ba, nik! Arazorik? Ez, ezta? Ba, nahiko. Gaurko egunean, hamabost urte, zazpi hilabete eta hiru egun ditut. Nire itxura fisikoa, zuen imajinazioaren esku. Bi ahizpa txikiagoak ditut, bikiak, lau urtekoak. Lerdea botatzen besterik ez dakite. Umeak gorroto ditut. Hau nazka! Ez dut ulertzen zergatik jendeak umeak eduki nahi dituen. Handitzen dira, haiek ere umeak izaten dituzte eta, zuk 60 urte egiterako, zurekin gogoratu ere ez dira egingo nahiz eta zuk hezi eta hazi. Horrelakoak dira gizakiak: kaka bat. Gurasoez ari garela hizketan, aitarekin bakarrik bizi naiz, amak abandonatu egin gintuen-eta nire bi ahizpak erditzerakoan. Ez sentitu nahigaberik, ez zait inporta. Hobeto bizi gara bera gabe, egia esan. Ezagutu dudan gizakirik desastreena da. Ez daki bere bizitza eramaten eta alkoholean ezkututzen da beti. Eta, zuk zeure burua ere zaindu ezin baduzu, nola edukiko dituzu, ba, bat ez, hiru haur? Erantzunak, zuen esku.

Eskerrak aita jatorra eta ona dudan. Ni ez naiz izango lehen aipatu ditudan seme-alabak bezalakoak. Bizitza honetako gauza gutxi bezala maite dut aita, asko. Gainontzekoak joatea pikutara! Nire ikaskideak, «lagunak», izeba-osaba txepelak... itxura besterik ez zaie inporta; hori bai, gero, nik baino gehiago kritikatzeko dute, baina diferentzia da nik gauzak aurpegira esaten ditudala eta berek ez, beti ezkutuan, arratoi zaharrak bezala. Baina bereziki, bereziki, bereziki gorrotatzen dudana nire aitona da. Segundo batez imajina ezazu munduko zikinkeria handiena dena pilatuta gizon zahar eta zimurtu baten gorputzean. Bueno, ba, horixe da nire aitona. Zorionak! Jada nire aitak baino hobeto ezagutzen duzu. Kontatu dizuedan moduan, aita asko maite dut, baina ez du ikusten aitona nolakoak den. Hobeto esanda, ez du nahi ikusi, nire «amaren» aita delako. Ez naiz xehetasunetan sartuko, ez zait-eta gustatzen honi buruz hitz egitea. Uste dut pixka bat gaitik desbideratu naizela, baina garrantzitsuena da ezagutu nauzuela nahikoa.

Larunbat bat zen, orain dela bi egun. Hamabiak aldera jaiki nintzen, aurreko gauean serieko hiltzaileen telesail bat ikusten egon nintzen-eta. Asko gustatzen zait horrelakoak ikustea. Batzuetan, gizon madarikatu horien biktima izatea gustatuko litzaidake, bizitza zorigaiztoko honekin bukatzeko. Zure aurpegia ikusi beharko zenuke oraintxe bertan. Lasai, honelakoak esaten ditudanean, sarkasmoa dira. Bueno, kontua da, esnatu nintzenean, zuzenean sukaldera joan nintzela eta, goize-ro bezala, ogi izoztua olio tanta batekin eta platano bat jan nituela. Badakit ez dela gosaririk normalena, eta batzuei higuin garria ere irudituko zaizue, baina proba ezazue: kristorena dago. Badaezpada ere: ez dut Kristorengan sinesten, baina espresio hori asko gustatzen zait. Egia esan, Satanasek infernutik bidalitako deabrurik maltzurrena naiz. Broma da! Ateoa naiz, egia esan, edo ez. Bueno... jan nuen eta nire lagun preziatu eta bakarrari deitu nion: Teori. Izen barregarria, ezta? Hau da, hau, pare: Adara eta Teo. Jaiegunetan edo asteburuetan etxe abandonatuak barrutik ikustera joaten gara; itzelezko denborapasa da: ikusi dezakegu ea jendeak nola laga zuen etxea abandonatuta orain dela mila urte, kasu askotan etxea ukitu gabe utzita. Inpresioa egiten du; askotan, ematen du etxe hartan garai batean bizitako familien espirituak atzetik dituzula, zuri zelatan. Harrigarria da sentsazio hori.

Aurreko egunean, erabaki genuen Ojosverdes palaziora joatea. Izen kurioa benetan, ezta? Herrikoen esanetan, 20 urte ziren oin batek etxe erraldoi hartako ataria azkenekoz zapaldu zuenetik. Etxe ikusgarria omen zen garai batean, Madriletik etortzen ziren jauntxo batzuen, baina, ematen duenez, auskalo zergatik, ez ziren itzuli hona. Ume batzuk, berriz, esan ziguten madarikatuta zegoela, jauntxo horiek bertan hil zituztela eta beren arimek han jarraitzen dutela. Nik ez dut horrelakoetan sinesten. Zer pentsatzen dute jauntxo horiek, munduaren zilborra direla? Niretzat, behintzat, ez dira garrantzitsuak ere. Baina sudurrean azkura egiten dit jakiteak nola eta non hil ziren, edo zergatik ez ziren itzuli etxe hartara. Egia esan, nik inoiz ez nuen ikusi etxea egun hartara arte, herritik nahiko urrun geratzen baitzen, mendi aldera. Bueno, kontua da Teo eta biok bizikletak hartu genituela eta palazio hartara abiatu ginela, googlemapsa martxan jarrita. Hogei minutu inguru pasatu genituen pedalei eragiten, izerdi patsetan, eta, aplikazioak zioenez, pare bat minutu-edo falta zitzaizkigun iristeko.

Nekez, baina iritsi ginen... guretzat ez zen gutxi. Alper hutsak eginda gaude, horregatik gara lagun onak. Gainontzeko ikaskide guztiak kirolekin obsesionatuta daude, batzuetan ikara eta guzti ematen dute. Gorputz Hezkuntzan gaudenean, ematen du joko olinpikoetan gaudela. Animalia basatiak ematen dute: elkarri bultzaka, marru egiten. Oso atsegina da ikusteko, jakitea horrelako txorakerien-gatik haserretzen direla. Barregura itzela sartzen zait. Teok eta nik barre egiten diegu askotan, eta berek ere egiten dute gutaz barre: Justua iruditzen zait. Izugarritzko piura dugu, baina ez zait asko inporta; denak inozo hutsak dira. Batxilergora iristean, denak kaka eginda egongo dira, festak, alkohola eta tabakoa besterik ez zaielako inporta, baina beren arazoa da. Jakin dezatela ni beti hor egon-

go naizela Teorekin berei barre egiteko. Egia esan, ez zait bereziki gustatzen etorkizunari buruz pentsatzea, ezezaguna delako. Ez dakit zer egingo dudan, zer ikasi, noiz hilko naizen, nola, bakarrik edo norbaitekin egongo naizen... Guztiz ezezaguna da. Heriotzari, ordea, ez diot beldurrik; kuriositatea, esango nuke. Baina, beti esaten dudana: bizitza kaka bat da eta nahiagoko nuke ez jaio, baina, hemen nagoenez, besteei barre egiteko aprobeixatuko dut eta, lasterka ari badira, hanka jartzeko, muturrez aurrera eror daitezten.

Harira joango naiz, behingoz. Iritsi ginenean, ate erraldoi batzuk zeuden gure muturren parean. Ez genuen, inondik inora ere, hori espero, baina bizitzan hainbat ezusteko daude eta aurre egin behar zaie, eta hori egin genuen. Nik ere ez dakit nola, baina ate haiek eskalatu genituen. Salto egiterakoan, orkatila bihurritu nuen, baina ezer larririk ez. Palaziorantz begiratu genuenean, aho bete hortz geratu ginen. Hori zen, hori, izatekoa! Inoiz ikusi genuen lorategirik handiena zen. Hiru kilometro karratu-edo edukiko zituen gutxienez. Lorategi bat baino gehiago, belardi bat ematen zuen, baina, belardi batekin alderatuz, hura oso zainduta zegoen. Egunero belarra moztuko balute bezala: zuhaitzak kimatu, landareei ura bota... Harrigarria zen, denetik zegoen: kolore guztietako arrosak, tulipanak, margaritak, hortentsiak, palmerak eta ezagutzen ez ditugun beste mila landare, zuhaitz eta lore. Inoiz ikusi nuen gauzarik ederrena zen, eta landare eta loreekin nahikoa ez balitz ere, animalia asko zeuden: txori eta hegaztiak, orkatzak, urtxintxak, untxiak... Norbaitek esango balit leku hura deskribatzeko, seguru aski esango nioke zerutik etorritako aingeru batek atek itxi zizkiola leku hari, mundu errearekin loturarik ez edukitzeko, eta han askatu zituela mundu honetako bizidun eder eta liluragarrienak. Benetan, ikusi gabe ez zenukete inoiz sinetsiko. Zuen ametsik goxoenetan ere ez litzateke agertuko. Bueno, ez dakit zuek gai izango zinatekeen amets onak egiteko, zekenkeriak besterik ez dituzue-eta buruan: dirua, boterea, fama... A, ze nazka! Orduan, Teok eta biok elkarri emozio-aurpegiz begiratu genion. Ez genuen urrundik ere horrelako zerbait espero.

Palaziora sartu aurretik (lorategia horren handia zenez, oso urrun geratzen zen), lorategia ikertu eta apreziatzea erabaki genuen. Ez nuen uste inoiz zerbaiti liluragarria edo ederra deituko nionik; ez bizitza honetan, behintzat.

Zentzuz pentsatzen hasi nintzenean, lorategiaren lilura alde batera utzita, haren edertasunak itsututa utzi ninduen momentu batez. Denak perfektuegia zirudien, norbaitek dena leku hartan kontuz-kontuz jarri izan balu bezala. Animaliak ere bai. Ez ziren animalia moduan portatzen, gutxi mugitzen ziren, mugimendu lasaia egiten eta, gainera, arazorik gabe gerturatzen ziren guregana. Arraroa eta guzti zen behin pentsatzen hasita. Arrosak ere hain perfektuak ziren, ematen zuela norbaitek kontuz-kontuz margotu eta petaloak itsatsi zituela. Teori komentatu nion nire burutapena, baina ez zidan kasurik egin. Txorakeriak besterik ez zirela. Kasu egin nion.

Lorategiaren erdi aldean gindoazen eta atzera begiratu nuen. Bat-batean, Teo desagertu zen. Ez nuen inon ikusten. «Non sartu ote da mutil hau?» pentsatu nuen. Lorategiaren erdi-erdian, elefante baten tamainako iturri bat zegoen. Badakizue, harriz eta apaingarri historikoz betetako iturri dotore horietako bat. Gogoratzen naiz, txikia nintzela, aita, ama eta hirurok Madril bisitatzera joan ginela eta haren antzeko iturri batean sartu nintzela, ura garden-gardena zegoelako. Esperientzia bikaina izan zen, baina gurasoek oso haserre bukatu zuten nirekin.

Bat-batean, konturatu nintzen jada ez nituela kontrolatzen nire gorputzaren mugimenduak, panpina huts eta burugabe bat izango banintz bezala. Indar baten bulkadak iturriko uretan murgildu ninduen eta ezin nuen burua atera, gorputzak ez zidan kasurik egiten. Orduan, hil egingo nintzela onartu nuen eta begiak itxi eta saiakerak egiteari utzi nion. Ez zen txikitako iturriarekin izan zuen esperientzia bezalakoa.

Baina, orduan, kanpoan nintzen berriro bat-batean —lehorra, gainera, iturrian murgiltzearena inoiz gertatu ez balitz bezala—, baina oraindik ez nintzen nire gorputzaren jabe. Ibiltzen hasi nintzen. Oinean zerbait sumatu nuen eta pum! zulo barrura! Ematen zuen txirrista erraldoi batetik jaisten ari nintzela, eta ari nintzen. Tripak irteten ari zitzaizkidala iruditzen zitzaidan: Ikara eta adrenalina nire gorputzean sartuta, biak atera nahian. Emozioz betetako abentura. «Zer ari da gertatzen? Zergatik ari naiz txirrista erraldoi honetatik jaisten?» pentsatu nuen. Eta, jaun-andreok, zuzen zaudete, hasierako pasarte misteriozura iritsi gara. Iruditzen zait intriga dezente zenutela ea zergatik ari nintzen txirrista batetik jaisten, ezta? Egia esan, nik ere banuen gogoan puntu honetara iristeko, oso aldrebesa bihurtzen ari baita nire istorioa. Jarraitu dezagun. Txirristaren amaierara iristen ari nintzen eta lurra gero eta gertuago ikusten nuen eta, zenbat eta gehiago gerturatu, pertsona baten formako zerbait ikusten nuen zutik. Teo zen. Izugarrizko poza hartu nuen Teo ikustean, baina berak ez ninduen ikusten. Ezin nuen soinurik eta builarik egin eta ematen zuen galduta zegoela, ikaratuta. Ez zidan kasurik egiten.

Bat-batean, beste gela batean geunden biok. Gela ispiluz beterik zegoen eta ez Teo ez ni ezin ginen mugitu. Elkarri begira geunden, baina begiak kliskatu ere ezin nituen egin, lehortzen ari zitzaizkidan. Pentsatzen dut berari ere gauza bera gertatzen zitzaiola. Kaka bat zela pentsatu nuen. Agian, galdetuko duzu zure barnean: Zer da kaka bat, ba? Eta nik erantzuten dizut momentu hartan dena iruditzen zitzaidala kaka bat: bizitza osoa. Bueno, egia esan, momentu hartan pentsatzen jarri nintzen eta ondorioztatu nuen agian ez nengoela bizirik eta, pelikuletan egiten duten bezala, nire bizitza errekapitulatzen ari nintzela. Eta, agian, orain pentsatzen jarrita, ez zen horren ideia zentzugabea. Agian, Teorekin asko identifikatzen nintzenez, hori zen nire bizitza: Teoren isla nintzen edo sentitzen nintzen, haren berdina.

Orduan, jardinean azaldu ginen berriro biok, aurrez aurre. Baina, azkenean, nire gorputza kontrolatzeko gai nintzen eta Teo ere bai. Biok elkar besarkatu genuen eta

komentatu genuen zeinen esperientzia bitxia bizi izan genuen. Ez dut lehenago esan, baina Teo ere asko maite dut. Asko. Benetan asko. Pixka bat hitz egin eta biok adostu genuen etxera itzultzeko ordua zela eta ez zuela merezi gure bizitza arriskuan jartzea palazioa ikusteagatik. Ibiltzen hasi ginen sarrerarantz, berriro ikusiko ez genuen ametsetako leku hari agur eginez. Baina, zoritxarrez, bat-batean, dena paperezkoa bilakatu zen: animaliak, landareak, zuhaitzak, palazioa, atea, gure bizikletak, lurra. Paperak ez zuen jasan gure pisua eta zuloa egin zen lurrean. Baina oraindik eta gauza okerragoa gertatu zen: Teo abiadura normalean erortzen hasi zen, baina ni ohikoa baino geldoago ari nintzen jaisten. Teori eskua ematen saiatu nintzen, baina irristatu egin zen. Ikusi egiten nuen nola Teo pixkana-pixkanaka desagertzen zihoan eta nik ezin nuen ezer egin. Bat-batean, izugarritzko marru bat entzun nuen eta, horren ondoren, kolpe bat, pisu astun batek lurra jotzen duenean bezala. Teo zen, nire Teo maitea, nire lagun bakarra. Lur jota geratu nintzen geldo-geldo erortzen nihoan bitartean.

Eta esnatu egin nintzen. Hori da, jaun-andreok: hau guztia amets zoro eta aldrebes bat besterik ez da izan, nire imajinazioaren fruitu. Eta, abenturaz aparte, nik hasieran kontatu dizuedan bizitza guzti hori ere amets bat izan da. Esnatu nintzenean, guztiz nahastuta nengoen eta, oraindik ere, hondatuta jarraitzen dut. Nire benetako bizitza beste bat da: ama bat dut nire aitarekin bizi dena eta ez dut anai-arrebarik. Gurasoak ondo moldatzen dira, lagun asko ditut, ezaguna naiz nire ikastetxean eta mutil lagun bat eta guzti dut.

Baina nahiago dut nire lehengo aita. Teo ere ez dago. Nire Teo maitea. Nahiz eta ama gorrotagarri bat eduki eta bi ahizpa mukitsu ere bai, mila aldiz nahiago nire lehengo bizitza, nire ametsetako bizitza.

Klara Puertas Rementeria

